**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2016ko Martxoak 15 / 15 - Marzo - 2016**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2016/03/15

**HASIERA / INICIO:** 17:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabai-datzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2016KO URTARRILAREN 26KO OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 26 DE ENERO DE 2016.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2016ko urtarrilaren 26ko ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 26 de Enero de 2016.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2016ko urtarrilaren 26**ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **26 de Enero de 2016**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Betiko legez, eskuragarri dauzkazue espediente guztiak Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como es costumbre, todos los expedientes están a vuestra disposición en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, DURANGOKO ETXE-GABETZEEN KONTRAKO PROTOKOLOAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA. (GIZARTE EKINTZA ETA ENPLEGU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2016KO MARTXOAREN 10EKOA).**

**TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE PROTOCOLO CONTRA LOS DESAHUCIOS DE DURANGO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL Y EMPLEO DE 10 DE MARZO DE 2016).**

Gizarte Ekintza eta Enplegu Batzordearen 2016ko martxoaren 10eko irizpenaren berri ematen da:

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Acción Social y Empleo de 10 de Marzo de 2016, del tenor literal siguiente:

"Aurreko batzarretan, etxegabetzeen kontrako protokoloaren zirriborroa aztertu ondoren, Pilar Rios saileko presidenteak jakinarazten du laugarren puntua aldatu eta egokitu ostean honako hau dela behin betiko testua:

*"<u>ETXEGABETZEEN AURKAKO PROTOKOLOA</u>"*

*Protokolo honen bidez, Durangoko Udalak saihetsi edo, kasu bada, kudeatu egin nahi ditu borondate oneko zordunen balizko etxegabetze kasuak; betiere, zordun horiek hipoteka exekutatzeko prozesuan badaude edo ohiko etxebizitzaren errenta ez ordaintzeagatik epaiketa batean murgilduta badaude, urrakortasun-egoera larria bizi badute, eta Durangon gertatzen bada. Ez zaio protokolo honi jarraituko baldin eta ageriko nahasmendu ekonomiko kasua edo axolagabekeria ekonomiko kasua bada.*

1. *Egoera honen aurrean, nahitaezkoa da etxegabetzeak salatu eta haien kontra doazen erakunde sozialen eta instituzioen arteko elkarlana. Horretarako, Udalaren eta erakunde sozialen arteko hartu-emana etengabea izango da, eta beharrezkotzat jo bada, horretarako udal-batzorde berezia sortu ahal izango da.*

2. *Udala Durangoko finantza-erakundeekin harremanetan jarriko da, protokoloaren berri emateko eta gerta litezkeen etxegabetze kasuak aurretiaz hautemateko.*

   *Horrez gain, etxegabetze-prozesuari ekin dion bankuari prozedura eteteko eskatuko zaio.*

3. *Udalak berrikusi egingo ditu finantza-erakundeekiko dituen harreman ekonomikoak, instituzionalak eta lankidetzakoak, etxegabetzeen aurrean haiek erakusten duten jarreraren arabera.*

   *Aurrerantzean, protokolo honi atxikitako finantza-erakundeak hautatuko ditu Udalak.*

4. *Udala Kutxabankeko kide denez, erakunde honek bultzaturiko etxegabetze-prozedurak zehaztasun osoz aztertuko ditu.*

"Tras el estudio en anteriores reuniones del borrador de protocolo contra los desahucios, la presidenta del área, Pilar Ríos, informa que, tras la modificación del punto 4, el texto final es el siguiente:

*"<u>PROTOCOLO CONTRA LOS DESAHUCIOS</u>"*

*Con este protocolo, el Ayuntamiento de Durango quiere prevenir y/o gestionar los posibles casos de desahucios de deudores de buena fe, derivados de un procedimiento de ejecución hipotecaria o de un juicio por falta de pago de renta de vivienda habitual, en los que se observe una situación de especial vulnerabilidad, y que se generen en el ámbito municipal. No serán aplicables en los casos de desórdenes económicos manifiestos o negligencia económica.*

1. *Ante esta situación, resulta imprescindible el trabajo en común entre las instituciones y los organismos sociales que denuncian y combaten los desahucios. Para ello, la relación entre ayuntamiento y organismos sociales será constante y, en los casos en que se considere necesario, quedará abierta la posibilidad de constituir una comisión municipal especial.*

2. *El Ayuntamiento se pondrá en contacto con las entidades financieras situadas en el municipio a fin de trasladarles el contenido del protocolo y asegurar la identificación de los posibles casos de desahucio con la antelación necesaria.*

   *Asimismo, se solicitará a la entidad bancaria que haya iniciado el proceso de desahucio la paralización del procedimiento.*

3. *El Ayuntamiento revisará las relaciones económicas, institucionales y de colaboración con las entidades financieras en función de la actitud que mantengan respecto a los desahucios.*

   *A partir de ahora, el Ayuntamiento optará por entidades financieras que se adhieran a este protocolo.*

4. *En la medida en que el Ayuntamiento es miembro de Kutxabank, se realizará un seguimiento específico en todos los procedimientos de desahucio que inste la entidad.*

*5. Udalak herritarrei jakinaraziko die banku, kutxa edo kooperatiba bakoitzak zer jarrera duen etxegabetzeen aurrean.*

*6. Udalak epaitegiari eskatuko dio jakinaraz dezala egon litekeen etxetik botatzeko agindu judizial edo etxegabetze oro. Hartara, urrakortasun-egoeran dauden kolektiboak hauteman ahal izan dira, gizarte-zerbitzuei horien berri emango zaie, eta pertsona horiei alternatibaren bat eskaini ahal izango zaie.*

*7. Durangoko Udalak ez du etxegabetze-prozeduretan parte hartuko, ezta lagunduko ere. Eta, etxegabetzeetan parte hartzeari uko egiten dioten udal-langileak babestu egingo ditu, lan-arloan nahiz maila administratibo eta judizialean.*

*8. Udalak informazioa, baliabideak eta laguntza emango die etxegabetzeko arriskua duten herritarrei, baita dagoeneko etxerik gabe gelditu direnei ere.*

*ETXEGABETZEAK PREBENITZEKO PROZEDURA:*

*Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik "leihatila bakarrekoa" zerbitzua eskainiko da. Horren bitartez, ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan daudenei lagun egingo zaie, informazioa emango zaie edota euren beharrizanei ondoen erantzuten dieten baliabidetara bideratuko dituzte; esaterako, Gainzorpetutako Familiei Laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzura.*

*Era berean, Udalaren aholkularitza juridiko zerbitzura bideratuko dituzte, egoerak eta eskatzaileak behar dutenean, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek esku hartu behar dutela irizten diotenean.*

*ETXEGABETZE KASUAK ARTATZEKO KOORDINAZIO-PROZEDURA:*

*Atal honetan bildutako esku-hartzeak borondate oneko zordunen balizko etxegabetze kasuak artatzeko dira; betiere, zordun horiek ohiko etxebizitza erosteko eskatutako hipoteka-kredituaren kuotak ez ordaintzeagatik prozedura judizial batean murgilduta badaude edo ohiko etxebizitzaren errenta*

*5. El Ayuntamiento pondrá en conocimiento de la ciudadanía la actitud que mantenga cada banco, caja o cooperativa ante los desahucios.*

*6. El Ayuntamiento solicitará al Juzgado que comunique todos los casos que puedan conllevar lanzamiento o desahucio, con el fin de que se pueda detectar colectivos vulnerables, emitir informes de los servicios sociales, y proponer una alternativa habitacional.*

*7. El Ayuntamiento de Durango no apoyará ni participará en los procedimientos de desahucios, y amparará a nivel laboral, administrativo y judicial a los trabajadores y trabajadoras municipales que se nieguen a participar en los mismos.*

*8. El Ayuntamiento ofrecerá información, recursos y apoyo a la ciudadanía que se encuentra en riesgo de sufrir un desahucio, o éste ya se haya producido.*

*PROCEDIMIENTO PREVENTIVO DE DESAHUCIOS:*

*Desde los Servicios Sociales de base se ofrecerá un servicio de "ventanilla única", a través del cual se realizará un proceso de acompañamiento a las personas que se encuentren en riesgo de perder su vivienda habitual, se les informará y/o se les derivará a los recursos que mejor se adapten a sus necesidades, como el Servicio de Ayuda al sobreendeudamiento familiar de Gobierno Vasco.*

*Asimismo, se les derivará al Servicio de Asesoramiento Jurídico municipal cuando las circunstancias de los y las solicitantes así lo requieran y se determine la conveniencia o necesidad de intervención por parte de los Servicios Sociales de base.*

*PROCEDIMIENTO PARA LA COORDINACION DE LA ATENCION EN CASOS DE DESAHUCIOS*

*Las intervenciones recogidas en este apartado están destinadas a atender aquellas personas deudoras de buena fe que, como consecuencia de un procedimiento judicial iniciado por la falta de pago de las cuotas de un crédito hipotecario contraído para la adquisición de su vi-*

*ez ordaintzeagatik epaiketa batean murgilduta badaude, eta ondorioz, ohiko etxebizitza uztera behartuta badaude, etxea uzteko agindu judizial baten bidez.*

*Dagokion epaitegiak Durangoko Udaltzaingoari etxea utzarazteko agindua bidali bezain laster, udaltzainek berehala jakinaraziko diote etxegabetutako pertsonari, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren laguntza eskaintzeko, eta ondoren, haiek aholku emateko eta egoera horretarako dauden udal-zerbitzuak eskaintzeko.*

*Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek honako hauek egingo dituzte:*

*Egoerari buruzko txostena egingo da, baita hartu beharreko neurriei buruzkoa ere. Eta, informazio hori Gizarte Ekintza Sailari igorriko zaio.*

*Dagoeneko pertsona etxegabetu badute, Etxebideren Etxebizitza Zerbitzuari jakinaraziko zaio, albait arinen pertsona horren eskura jar dezan babes ofizialeko alokairuzko etxebizitza.*

*Kasuan kasu baloratuko da ea egoki den prestazio ekonomikoak ematea.*

*Larrialdi-egoeren aurrean, larrialdi-kasuetarako udal-etxebizitza tramitatuko da, indarrean dagoen legediari jarraiki.*

*Durangon etxebizitza galtzea dakarren prozesu bat gertatu eta eragile sozialek etxebizitza izateko eskubidearen alde eta etxegabetzeen kontra kontzentrazio eta mobilizazioak deitzen dituztenean, Durangoko Udala batu egingo da."*

Saileko Presidenteak aipaturiko zirriborroa bozkatzeko eskatu die batzarkideei, eta honako hau izan da emaitza:

Alde:
- 2 EAJ-PNV.
- 1 PSE-EE (PSOE).
- 2 EH BILDU.
- 1 HE (SQ-2D).

Kontra: 1 PP.
Abstentzioak: 0.

*vienda habitual, o de un juicio por falta de pago de la renta, se ven obligados a abandonar su vivienda habitual por haberse dictado una orden judicial de lanzamiento.*

*Una vez el Juzgado correspondiente remita a la Policía Local de Durango la comunicación de la orden de lanzamiento, la Policía Local, de forma urgente, se pondrá en contacto con la persona desahuciada al objeto de ofrecerle la intervención de los Servicios sociales de Base de la Mancomunidad de Durango y Área de Acción Social del Ayuntamiento Durango en orden a asesorarle y ofrecerle los servicios municipales que están previstos para estas situaciones.*

*Desde Servicios Sociales de Base:*

*Se realizará un informe de la situación, así como de las medidas a adoptar; esta información se trasladará a la Comisión de Acción Social.*

*Si el desahucio se ha producido, se informará al Servicio de vivienda Etxebide para que facilite lo antes posible una vivienda de alquiler protegido.*

*Se valorará en cada caso si procede la concesión de prestaciones económicas.*

*Ante situaciones de urgencia, se tramitará un alojamiento municipal de emergencia, según lo establecido en la normativa vigente.*

*Cada vez que en el municipio se lleve a cabo un proceso que desemboque en la perdida de vivienda, el Ayuntamiento se sumará a las concentraciones y movilizaciones que puedan convocar los agentes sociales a favor del derecho a la vivienda y contra los desahucios."*

La Presidenta del área eleva a votación la aprobación del mencionado borrador de protocolo contra los desahucios, con el resultado siguiente:

Votos a favor:
- 2 EAJ-PNV.
- 1 PSE-EE (PSOE).
- 2 EH BILDU.
- 1 HE (SQ-2D).

Votos en contra: 1 PP.
Abstenciones: 0.

Hala, gehiengoz, batzorde honek Osoko Bilkurara bideratu du Durangoko etxegabetzeen kontrako protokoloaren zirriborroa onartzeko proposamena."

Así, y por mayoría, esta Comisión eleva al pleno de la Corporación la propuesta de aprobación del borrador de protocolo contra los desahucios de Durango."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Etxegabetzeen kontrako protokoloa idaztearen kontrako botoa eman dugu, puntuen idazketan izan den desadostasunagatik.

Nabarmendu nahiko genuke interesgarria litzatekeela jakitea zeren arabera eskatuko zaien finantza-erakundeei prozedura geldi dadin. Logikoa litzateke finantza-erakundeen artean ekintzaren bat egin ahal izatea; izan ere, hilabete batzuetan behintzat, interesdunak diru kopuru jakin bat ordaindu ahal izango luke gizarte-zerbitzuei esker hartzekoduna bihurtu den udal-laguntzak jasota. Noski, aurrekontu-ekarpena egin behar da horretarako.

Finantza-erakundeekin dituzun harremanak etxegabetzeei dagokienez duzun jarreraren arabera aztertzea hautesleak gustura edukitzeko promesa faltsuak egitea da, eta ez gaude horrekin ados, eta are gutxiago finantza-erakunde bakoitzak duen jarrera herritarrei ezagutzera ematearekin. Naziek judutarrekin egin zuten moduan egingo al duzue? Errefuxiatuen etxeetako ateak gorriz margotuz?

Esaten dutenean Udalak horietan parte hartzeari uko egiten dieten langileak babestuko dituela, Udaltzaingoaz ari al dira? Izan ere, hori horrela baldin bada, Udaltzaingoa epailearen aginduz ari baldin bada, jarduera horretan, udaltzaingoaren buruzagitzaren mendekoa izateari utziko dio eta zuzenean agintaritza judizialaren mendekoa izatera pasatuko da.

Udalaren aholkularitza juridikoko zerbitzura desbideratu beharrean, guk udaleko aholkulariekin edo kudeatzaileekin hitzarmen bat eskaintzea proposatuko genuke, finantza-erakunde batekin lotuta etxegabetze-egoeran dauden pertsonei laguntza aditua emateko. Zerbitzu horri, aurrekontu-ekarpena egin behar zaion horri, Udalak esku-hartze taula egin beharko lioke orduko prezioekin eta

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Hemos votado en contra de la redacción del protocolo contra desahucios por el desacuerdo con la redacción de los puntos.

Queríamos matizar que sería interesante saber en base a qué se va a solicitar a las entidades financieras la paralización del procedimiento. Lo lógico sería que se pudiera realizar una acción entre las entidades financieras, porque al menos, durante unos meses, el interesado podría pagar una cierta cantidad de dinero gracias a las ayudas municipales de las que se ha hecho acreedor facilitadas desde los servicios sociales. Claro, hay que hacer una dotación presupuestaria a tal efecto.

La revisión de las relaciones con las entidades financieras en función de la actitud que mantenga respecto a desahucios es un brindis al sol con el que no estamos de acuerdo y, mucho menos, con poner en conocimiento de la ciudadanía la actitud que mantenga cada entidad financiera. ¿Se va a actuar como los nazis con los judíos pintando las puertas de las casas de los refugiados en rojo?

Cuando se dice que el Ayuntamiento amparará a los trabajadores y trabajadoras que se nieguen a participar en los mismos, ¿se está haciendo referencia a la Policía Municipal? Porque si es así, y ésta actúa por mandato de un juez, deja de depender, en esa actuación, de la jefatura de la policía y pasa a depender automáticamente de la autoridad judicial.

En lugar de derivar al servicio de asesoramiento jurídico municipal, nosotros propondríamos ofrecer un convenio con las asesorías o gestorías del municipio para que efectúen un acompañamiento experto a las personas que se encuentren en esta situación de desahucio ante una entidad financiera. Este servicio, al que hay que dotar presupuestariamente, consistiría en elaborar desde el Ayuntamiento una tabla de

esku-hartze bakoitzeko gehieneko ordu kopuruarekin. Tarifa hori Durangoko aholkularitza-enpresa guztiei eskainiko litzaieke eta erakundeak ordainduko luke dagokion faktura. Aurretik egindako kudeaketen eta horien emaitzen txosten zehatza aurkeztuko da.

Interesatutakoen zerrenda eduki ostean, gizarte-zerbitzuek kaltetutako pertsonei eskaintzen die. Horiek interesatzen zaiena aukeratuko dute eta adituaren laguntza gauzatuko da. Zerbitzu horren berri eman behar zaie finantza-agintariei kalean inor gera ez dadin saiatzeko. Egoerak irtenbiderik ez duenean, protokolo honetarako, udal etxebizitza kopuru jakin bat mobilizatu beharko da.

* 1. Alkateordea <u>**Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**</u>: Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiet etxegabetzeen kontrako protokolo hau babestuko duten indar politiko guztiei. Udal honek etxegabetzeen kontrako borrokan hartu duen konpromisoa bistakoa da, bai behintzat 2012. urtetik. Indar politikoek mozioak aurkeztu ditugu gaur babestuko dugun testua izan dezagun. Etxegabetzeen hainbat elkarterekin, protokolo honi publizitatea emateko konpromisoa hartu dugu, eta horrela egingo dugu.

* <u>**Perera Figuereda andreak (Herriaren Eskubidea)**</u>: Guk ere eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lanean eta batzordean parte hartu duten pertsona guztiei.

Administrazio publikoen erantzukizuna da egoera ahul horretan geratzen diren pertsonei babesa ematea. Hasteko, uste dugulako hori dela administrazio publikoen zeregina, eta bigarrenik, erantzunkidetasunez; hau da, nolabait, orain arteko gobernuak gertatukoaren partaide izan dira, bai beste aldera begiratu dutelako, bai hori hobetsi egin dutelako higiezinen burbuila sortu zuen egoera hau. Eta ez hori bakarrik, finantza-burbuila ere sortu zuen, dirua merkatuz eta pertsonak arriskuan sar zitezen bultzatuz.

* <u>**Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**</u>: Heldu da protokoloa onartzeko eguna, baina salatu nahi dugu berandu heldu dela. Gogorarazi nahi dut hau gaur

intervenciones con sus precios por hora y un número máximo de horas por intervención. Esta tarifa se ofrecería a todas las asesorías y gestorías de Durango, siendo la institución la que abonaría la factura correspondiente previa presentación de un informe detallado de las gestiones realizadas y sus resultados.

Una vez que se tiene una relación de las interesadas se ofrece ésta desde los servicios sociales a las personas afectadas para que elijan la que les interese y que se lleve a efecto el acompañamiento experto. Este es otro de los servicios que se debe de poner en conocimiento de las autoridades financieras para evitar que nadie se quede en la calle. Cuando la situación no tenga solución habrá que movilizar, para este protocolo, un determinado número de viviendas municipales.

* 1ª Tnte. de Alcalde <u>**Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**</u>: Quería empezar dando las gracias a todas las fuerzas políticas que van a apoyar este protocolo anti desahucios. El compromiso de este ayuntamiento en la lucha contra los desahucios ese evidente, por lo menos desde el año 2012 donde diferentes fuerzas políticas hemos presentado mociones para que tengamos el texto que hoy vamos a apoyar. Nos hemos comprometido con diferentes asociaciones anti desahucios a darle publicidad a este protocolo y así lo vamos hacer.

* Concejala <u>**Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea)**</u>: Nosotros también queríamos agradecer a todas las personas que han tomado parte en la comisión y en el trabajo que hemos realizado.

Es una responsabilidad de las administraciones públicas el hacer ese ejercicio de protección a las personas que se quedan en esa situación de vulnerabilidad, primero porque creemos que esa es una labor de las administraciones públicas y segundo por una corresponsabilidad, es decir, de alguna manera los diferentes gobiernos que ha habido han sido partícipes, bien por mirar a otro lado bien por favorecerlo, de esta situación que generó una burbuja inmobiliaria y que también generó una burbuja financiera abaratando el dinero y haciendo que las personas entraran en riesgo.

* Concejala <u>**Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**</u>: Ha llegado el día de aprobar el protocolo, pero queremos denunciar que ya es tarde. También quiero recordar que, antes de debatir esta cues-

hona ekarri arte, aurreko legegintzaldian ere guk pare bat mozio sartu genituela. Hainbat batzordetan eskariak egin genituen eta ez zen posible izan aurreko legegintzaldian protokoloa aurrera ateratzea.

tión hoy aquí, presentamos un par de mociones en la pasada legislatura. A pesar de que lo solicitamos en varias comisiones, no fue posible que el protocolo saliera adelante en la anterior legislatura.

Legegintzaldi berriarekin ekin diogu hau lantzeari. Alderdi politikoekin, gizarte langileekin eta beste teknikari batzuekin batera hainbat ekarpen egin izan diogu protokoloari eta gaur da eguna onartzeko. Eskari bat egin nahi diegu alderdi guztiei, hau da, konpromiso zehatz bat jasotzea osoko bilkura honetan gauden guztion aldetik. Eskaria oso sinplea da: hilean behin gizarte ekintzako batzordean jarraipena egitea protokolo honi. Onartzea ondo dago baina beharrezkoa ikusten dugu jarraipena egitea, hilean behin, etxe kaleratzeekin egon diren gorabeherak aztertzeko.

En esta nueva legislatura, sin embargo, nos hemos puesto a ello. Hemos hecho bastantes aportaciones junto con otros partidos políticos, con trabajadores sociales y con otros técnicos, y hoy es el día en que se va a aprobar el protocolo. En ese sentido, queremos pedir algo a todos los partidos, algo a lo que nos comprometamos todos los que estamos en este pleno. Es una petición muy simple: que se realice un seguimiento mensual a este protocolo, en la comisión de acción social. Está bien que se apruebe, pero creemos que es necesario realizar un seguimiento mensual para analizar lo que ocurra con los desahucios.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andrea (EAJ/PNV)**: Geu ere poztu egiten gara gaur hona ekarri delako protokolo hau bozkatzeko. Batzuentzat "brindis al sol" delakoa dena EAJk ez du behar izan dokumentu bat lanean hasteko aurkeztu izan zaizkion arazoen aurrean.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros también nos alegramos de que se vaya a votar este protocolo hoy aquí. Lo que para algunos es un *brindis al sol* no lo ha necesitado el PNV para empezar a trabajar en un documento, a pesar de los problemas que han surgido.

Aurreko legegintzaldian ere lanean egon gara, aurreko legegintzaldian Gizarte Ekintzan egon garenok gure alderdiak ordezkatzen jakin izan dugu arazoren bat heldu denean, denon artean konponbidea ematen saiatu izan gara eta gaur protokolo hau sinatzeak ez da "brindis al sol" egitea baizik eta jarraipen bat egitea jadanik aurreko legegintzalditik udal honetan egiten ari den lan bati, beti ere alderdi politiko guztiekin.

Ya trabajamos en ello durante la anterior legislatura; quienes representamos a nuestro partido en la Comisión de Acción Social la pasada legislatura sabemos que, cuando han surgido problemas, hemos intentado solucionarlos entre todos. Así que firmar este protocolo hoy no es un *brindis al sol*, sino un seguimiento del trabajo que ya se empezó a hacer en el Ayuntamiento en la anterior legislatura, junto con todos los partidos políticos.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andrea PSE-EE (PSOE)**: Egia da gaur protokolo hau ekarri dugula hona, eta azkenean bistaratu egingo dela, baina garrantzitsua iruditzen zait nabarmentzea izan diren etxegabetze-kasu guztiak Gizarte Ekintzan landu direla eta irtenbidea eman zaiela.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Es verdad que hoy se trae aquí este protocolo y por fin va a ver la luz, pero me parece importante incidir en que todos los casos de desahucios que ha habido se han trabajado en Acción Social y se les ha dado una solución.

Gogoratu behar dugu baita ere duela urte batzuetatik 145.000 euroko partida bat dugula onartuta. Udal etxebizitza parke bat dugu eta beharrezkotzat jo denean erabili da.

Recordamos también que tenemos aprobada desde hace unos cuantos años una partida de 145.000 euros, disponemos de un parque de viviendas municipales y se ha hecho uso cuando se ha visto necesario.

* **Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea)**: Egia da lehendik ari ginela lantzen; baita ere egia da orain arte lanean eta pertsonak babesten aritu garela. Hau ez da hasiera, jarraipena da, baina honekin ez da guztia amaitzen; hau da, askoz ere gauza gehiago egin behar dira, ez etxegabetzeetan jarduteko soilik, baita horiek saihesteko edo antzeko zerbait gerta ez dadin neurriak jartzeko ere.

Lanean jarraitu behar dugu gure bizilagunak soziala, babesa eta segurtasuna den guztia beste ororen gainetik jartzen duen udalerrian bizi daitezen.

* **Uribe Padilla andreak (Euskal Herria Bildu)**: Protokolo hau aurreko Osoko Bilkurara ekarri behar genuen baina gure asmoa zen alderdi guztien babesa jasotzea. Baina irizpenaren egunean Alderdi Popularreko bozeramaileak esan zuen ez zegoela ados. Alderdi guztien babesa ez zuenez jaso erabaki genuen hilabete atzeratzea.

Hilabete honen ostean ez dugu ekarpenik jaso, bakarrik esan digute ez daudela ados testuarekin. Hemen ikusten da batzuk, kasu honetan Alderdi Popularrak, ez daukala ez ekarpenik egiteko ez arazo honi irtenbiderik emateko nahirik, hau da, ikusten da sufritzen ari diren familiekin lan egiteko nahi eza.

Eskerrak horrelako gai bat atera dugula Durangon, Alderdi Popularraren eskuetan utziz gero jende asko egon zitekeen kalean eta etxe barik. Azpimarratu nahi dut protokolo honekin bankuek ere badakitela etxe-kaleratzeak egiten badituzte guk publiko egingo ditugula.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gu ados gaude Herriaren Eskubidearen Bozeramaleak esandakoarekin. Hau ez da lehenengo pausu bat, erdi-bitarteko beste pausu bat baizik eta dokumentu dinamikoa izan behar du behar dituen ekarpen edo zuzenketak egin ahal izateko.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitxa hauxe:

* Concejala **Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea)**: Sí que es cierto que se viene trabajando desde antes y también es cierto que hasta ahora se ha estado trabajando y protegiendo a las personas. Esto no es un inicio, es una continuidad pero con esto no se termina todo, es decir, hay que hacer muchísimas más cosas, no solamente para actuar en los desahucios sino que también para prevenirlos o para evitar que vuelva a suceder algo parecido.

Tenemos que seguir trabajando para que nuestros vecinos y vecinas puedan vivir en un municipio donde lo social, la protección, la seguridad esté por encima de cualquier otra cosa.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: La intención era traer el protocolo al anterior pleno, pero queríamos conseguir el apoyo de todos los partidos. Sin embargo, el día en que se dictaminó el Portavoz del Partido Popular manifestó que no estaba de acuerdo. Dado que no conseguimos el apoyo de todos los partidos, decidimos atrasarlo un mes.

Durante ese tiempo no hemos recibido ninguna aportación; solo nos han dicho que no están de acuerdo con lo que dice el texto. Aquí se ve que algunos, en este caso el Partido Popular, no quieren realizar aportaciones ni buscar una solución a este problema; es decir, no quieren trabajar con las familias que sufren.

Menos mal que hemos sacado este tema en Durango; si lo hubiéramos dejado en manos del Partido Popular, habría mucha gente en la calle y sin vivienda. Quiero subrayar que con este protocolo los bancos también saben que si llevan a cabo desahucios lo haremos público.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros estamos de acuerdo con lo que ha dicho la Portavoz de Herriaren Eskubidea. Esto no es un primer paso, sino uno intermedio, y este documento debe ser dinámico para poder realizar las aportaciones o las correcciones necesarias.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrato botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **DURANGOKO ETXEGABETZEEN KONTRAKO PROTOKOLOA**, lehen transkribatutako testuaren arabera **ONARTU EGITEN DU**.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto íntegro del **PROTOCOLO CONTRA LOS DESAHUCIOS DE DURANGO**, conforme al texto anteriormente transcrito.

**LAU.- ALKATEORDEA MARIA JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA ANDREAK ELA SINDIKATUAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDAL KONTRATAZIO PUBLIKOAN KLAUSULA SOZIAL JAKIN BATZUK SARTZEKOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016001854, 2016KO MARTXOAREN 10EKOA).**

* Alkatesa Ordea **Balier Orobio-Urrutia andreak (EAJ/PNV)**, ELA Sindikatuaren izenean, izenpeturiko mozioa, udal kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzekoari buruzkoa irakurri du. Sarrera Erregistroa 2016001854, 2016ko martxoaren 10ekoa, eta honako hau dioena:

"*Mozioa (97.3 art., 2568/1986 Errege-Dekretuko 91.4. artikuluarekin lotua, zeinaren bidez onartzen baita tokiko erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta erregimen juridikoari buruzko Araudia): Talde politikoren batek udalbatzari jakinarazten dio proposamena, hitzez zein idatziz, gai-ordeneko puntuak aztertu ondoren eta galde-erantzunen txandari ekin aurretik].*

***Aurrekariak***

*Estatu sozial batean herri-botereen jardunean aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen ga-*

**CUATRO.- MOCIÓN PRESENTADA LA ALCALDESA EN FUNCIONES, DOÑA MARIA JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA, EN REPRESENTACIÓN DEL SINDICATO ELA, RELATIVA A LA INCORPORACIÓN DE DETERMINADAS CLÁUSULAS SOCIALES EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA MUNICIPAL. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016001854, DE 10 DE MARZO DE 2016).**

* La Alcaldesa en funciones **Sra. Balier Orobio-Urrutia (EAJ/PNV)**, en representación del Sindicato ELA, da lectura al texto de la Moción relativa a la incorporación de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública municipal, con Registro de Entrada nº 2016001854, de 10 de Marzo de 2016, del tenor siguiente:

"*Moción (art. 97.3, en relación con el art. 91.4, del RD 2568/1986, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades Locales): propuesta que se somete directamente a conocimiento del Pleno, verbalmente o por escrito, por algún grupo político, concluido el examen de los asuntos del orden del día y antes de pasar al turno de ruegos y preguntas]*

***Antecedentes***

*En un estado social, el establecimiento de unas condiciones mínimas de vida que posibiliten el desarrollo de las personas es un objetivo que*

*rapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.*

*Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan merkatuan. Langabezia hazi egin da eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.*

*Gainera, egoera juridiko-laborala zalantzazkoa da, hitzarmen kolektibo askoren iraupena galdu egin baita estatuko Gobernuak 2012an egindako erreforma laboralaren ondorioz.*

*Proposamen honen oinarria da ezikusiarena ez egiteko borondatea, eta egoera hori bideratzeko ahaleginean ekarpen bat egitekoa, urrats egingarrien bidez.*

*Argi dago Udal honek ez daukala legegintza laboraleko eskumenik, baina egia da ere langile askok eta askok herri-administrazioen menpe dihardueIa, zuzenean ala zeharka. Hala da, noski, herri-administrazioentzat lan egiten duten enplegatuen kasuan, funtzionario, estatutario edota laboralen erregimenean dela ere. Baina pertsona askok ere zeharka arlo publikoarentzat lan egiten duten enpresa pribatuetan dihardu, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen baitan egindako kontratuak medio. Hartara, kontratazio publikoa jarduera ekonomiko garrantzitsua da, eta honetan Udalak bai daukala eragiteko aukera, kontratuetarako baldintza minimo batzuk ezarrita.*

*Legez kudeatzeko era hau onartuta dagoen arren, ezin da ahaztu kontrolik gabeko azpikontratazio batek lan-merkatuan egonkortasun eza eragin dezakeela. Hau diogu egungo agertoki juridikoarekin ez dagoelako lan-baldintzen gutxieneko maila bat (minimo legalak gorabehera); ezegonkortasuna sortzen da arlo publikoaren kudeaketa modu honek sortzen duen enplegua maiz badaezpadakoa izan ohi delako.*

*Udal honek azpikontratatzen duen enplegua prekarioa eta ezegonkorra izatea arrazoi nahikoa da proposamen hau bultzatzeko; bere xedea, Udal honek eta bere erakundeek edo menpeko entitateek kontratatzen dituzten obretan, herrilanetan,*

*debe estar presente en la actuación los poderes públicos.*

*La crisis económica está teniendo un efecto muy negativo en el mercado laboral. El paro ha aumentado y las condiciones de trabajo de quienes tienen empleo están sufriendo, en muchos casos, recortes importantes.*

*Además de ello, el escenario jurídico-laboral es incierto ante la pérdida de vigencia de muchos convenios colectivos, a raíz de la reforma laboral realizada por el Gobierno estatal en 2012.*

*Esta propuesta parte de una voluntad de no mirar hacia otro lado y de tratar de aportar, desde lo posible, para revertir esa situación.*

*Es evidente que este Ayuntamiento carece de competencias sobre legislación laboral, pero es también cierto que un gran número de trabajadores y trabajadoras dependen, directa o indirectamente, de las administraciones públicas. Así sucede, sin ninguna duda, en el caso de los empleados y empleadas que prestan sus servicios directamente para las administraciones públicas, ya sea en régimen funcionarial, estatutario o laboral. Pero también sucede que existen muchas personas que trabajan en empresas privadas que prestan trabajo para el sector público de manera indirecta, a través de contrataciones realizadas al amparo de la Ley de Contratos del Sector Público. En ese sentido, la contratación pública es una actividad económica relevante en la que un Ayuntamiento sí que puede incidir, imponiendo unas condiciones mínimas de contratación.*

*A pesar de ser una forma de gestión legalmente permitida, no puede obviarse que una subcontratación incontrolada puede generar problemas de inestabilidad al mercado laboral. Inestabilidad porque con el escenario jurídico actual no existe un umbral mínimo de condiciones de trabajo (más allá de los mínimos legales) e inestabilidad porque el empleo que este tipo de gestión de lo público genera es, en muchos casos, empleo inestable.*

*La posibilidad de que el empleo subcontratado por este Ayuntamiento sea precario e inestable es motivo suficiente para impulsar esta propuesta, que busca garantizar unas determinadas condiciones sociales mínimas en la contratación de obras, de concesión de obras públicas, de gestión de los servicios públicos y de servicios en los que sea parte este Ayunta-*

*zerbitzu publikoen kudeaketan eta zerbitzuetan gutxieneko baldintza sozialak bermatzea.*

***Hitzarmen kolektiboa, kontratu publikoei ezarri beharreko lan-baldintzak***

*Hitzarmen kolektiboen iraupenari buruzko erregimen legalean egin diren erreformek, eta zehazki ultraaktibitatea urtebetera mugatu izanak, zalantza juridiko orokorra hedatu du hitzarmenetan araututa zeuden lan-baldintzei dagokienez, hauek legearen arabera dagoeneko indarrean ez dauden kasuetan.*

*Gainera, hitzarmen sektorial probintzialek ezarritako baldintzak honez gero ez dira sektorerako gutxieneko baldintzak, negoziazio kolektiboaren egituran eta hitzarmen kolektiboen konkurrentzia-erregimenean egindako erreformen ondoren.*

*Honen ondorioz, beharrezkoa da ekimen bat gutxieneko lan-baldintzak ezartzeko; halakotzat joko dira kontratua garatzen den sektoreko esparru txikieneko hitzarmen sektorialekoak. Izan ere, kontrara, posible litzateke kontratua hartzen duen enpresa bakoitza baldintza desberdinekin aurkeztea, eta horrek dumping laboralaren gisako zerbaiti bide emango lioke, hots, kontratua esleitzen zaien enpresen eskaintzen arteko lehia beren enplegatuen lan-baldintzak murriztean oinarritzea.*

***Enplegu azpikontratatuaren egonkortasuna***

*Zerbitzu publikoen esternalizazioak eragiten duen beste arazo bat enplegu ezegonkorra dugu. Enpresa kontratistak sarri aldatzen dira, eta maiz zerbitzua uzten duten enpresetako langileek enplegua galtzen dute edota berrian beste kontratu bat egiten diete, hots, aurreko lan-kontratuaren baitan bereganatutako baldintzak ez dira aintzat hartzen.*

*Egoera hauek kalte egiten diote enplegu egonkorrari; lehenago hitzarmen sektorialekin konpontzeko saioa egiten zen, horietan subrogazioa aitortzen duten klausulak sartuaz.*

*miento y cuantos organismos o entes que de él dependan.*

***El convenio colectivo, las condiciones laborales aplicables a la contratación pública***

*Las reformas realizadas en el régimen legal de la vigencia de los convenios colectivos y, más concretamente, la limitación temporal a un año de la ultraactividad han generado una enorme incertidumbre jurídica sobre aquellas condiciones de trabajo que estaban reguladas en los convenios que, según la ley, han perdido vigencia.*

*Unido a esto, las condiciones establecidas por los convenios sectoriales provinciales, tras las últimas reformas en la estructura de la negociación colectiva y en el régimen de concurrencia de los convenios colectivos, ya no son condiciones mínimas del sector.*

*Esto justifica una iniciativa que establezca unas condiciones laborales mínimas que se entienden cubiertas con las condiciones recogidas en el último convenio provincial aplicable al sector en el que se desarrolle el contrato. De lo contrario, se posibilitará que cada empresa contratista/adjudicataria se presente con condiciones distintas, algo que facilitaría una especie de dumping laboral, es decir, un escenario en el que la competitividad en las ofertas de las empresas adjudicatarias se base en la rebaja de las condiciones de trabajo de sus empleados y empleadas.*

***La estabilidad en el empleo subcontratado***

*Otra de las problemáticas derivadas de la externalización de los servicios públicos tiene que ver con la inestabilidad en el empleo. Se dan frecuentes cambios en las empresas contratistas, y en muchas ocasiones las personas que trabajan en las empresas salientes pierden el empleo o son contratadas por la empresa entrante con un nuevo contrato, es decir, sin respetar las condiciones que se habían venido adquiriendo al amparo del anterior contrato de trabajo.*

*Estas situaciones contrarias a la estabilidad en el empleo trataban de ser neutralizadas desde los convenios sectoriales, donde se han venido recogiendo cláusulas que garantizan el derecho de subrogación.*

*Haatik, sektore mailako subrogazio-berme hauek pairatzen ari dira negoziazio kolektiboko egituraren erreformak hitzarmen sektorialetan oro har duen eragina; hitzarmenok gehienean probintzialak izan ohi ziren, eta hauek genituen enpresa kontratista aldatuz gero bermerik sendoena. Negoziazio-esparru estatalen ahalmen arautzaile eta egituratzaile handiagoaren eta enpresako hitzarmenaren lehentasunaren eraginez, hainbat hitzarmen probintzial oso mugatuta dago lan-baldintza jakin batzuk arautzeko. Azpikontratazioari dagokionez, esaterako, egiturari buruzko hitzarmen estatal batzuk berentzat gordetzen dute hura arautzeko ahalmena, eta propio baztertzen dituzte beste esparruak.*

***Konpromisoa***

*Azaldu den arazoa ikusirik, Mozio honekin hartu nahi den konpromisoa da udal-kontratazioan derrigor ezartzea klausula sozial jakin batzuk, lanak egiteko, herrilanak esleitzeko, zerbitzu publikoak kudeatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko kontratuetan. Eskakizun hau gauzatuko litzateke esleitzeko prozesua arautzen duten baldintza-agirian.*

*Horietan derrigor bete beharreko klausula sozial gisa sartuko dira gutxienik esparru txikieneko sektore-hitzarmeneko baldintzak derrigor errespetatzea eta kontratua amaitzen duen enpresako langileak subrogatzea, hots, kontratua hartzen duen enpresa berria uzten duenaren eskubide eta betebehar guztietan subrogatzen da.*

*Halaber, beharrezko jotzen da klausula horiek aintzat ez hartzea kontratuaren urraketa larri gisa arautzea, eta hori kontratua amaitzeko balizko zergatia izan liteke.*

***Proposamena***

*Arestian azaldutako aurrekariek bultzatzen gaituzte mozio hau idatzi eta Udalbatzak honako akordioa onartzera:*

*Akordioa:*

*Sin embargo, estas garantías subrogatorias sectoriales están padeciendo los efectos que la reforma en la estructura de la negociación colectiva está teniendo sobre los convenios sectoriales en general, la mayoría provinciales, que constituían la garantía principal ante el cambio de empresario contratista. La capacidad reguladora y estructuradora superior de los ámbitos estatales de negociación y la prevalencia del convenio de empresa hacen que varios convenios provinciales hayan visto seriamente mermada su capacidad para regular determinadas condiciones de trabajo. En el caso concreto de la subcontratación, por ejemplo, hay convenios estatales de estructura que se reservan para sí mismos la capacidad de regularla.*

***El compromiso***

*El compromiso que con esta Moción se pretende impulsar ante la problemática expuesta es el de que en la contratación municipal se establezca la obligatoriedad de incluir determinadas cláusulas sociales en los contratos de obras, de concesión de obras publicas, de gestión de los servicios públicos y de servicios. Esta exigencia se materializaría a través de los pliegos de condiciones que rigen el proceso de adjudicación.*

*En los pliegos de condiciones se incluirían como cláusulas sociales de obligado cumplimiento, la obligación de respetar como mínimo las condiciones del convenio del sector y de subrogar, en caso de cambio de contrata, a los trabajadores de la empresa saliente, es decir, la empresa entrante se subroga en todos los derechos y obligaciones de la empresa saliente.*

*Junto a ello, se considera necesario incluir el incumplimiento de las citadas cláusulas como incumplimiento grave de las obligaciones del contrato, lo cual será causa posible de resolución del contrato.*

***Propuesta***

*Los antecedentes descritos recomiendan la redacción de la presente moción y aprobación del siguiente acuerdo por parte del Pleno municipal:*

*Acuerdo:*

***"Durangoko Udalbatzak osoko bilkuran erabaki du akordio hau erabakitzen den egunetik aurrera beharrezko tramiteei ekingo diela ahalik epe laburrenean honako klausulak sartzeko Udal honen edota bere menpeko organismo zein erakundeek egiten dituzten kontratu publikoetako baldintza-agirietan*** *(lanetakoak, herrilanak esleitzekoak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak eta zerbitzuetakoak):*

***1) Enpresa kontratisten gutxieneko baldintzei buruzko klausula soziala.***

*Lehiaketa iragarpenean zein herri-administrazioetako kontratazio prozeduren klausula administratiboen pleguen karatulan ohar bat jarri beharrekoa izango da, esanez kontratazio hori derrigor bete beharreko baldintza berezi hauen pean dagoela:*

*"1.- Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, gizarte-segurantzari eta lan-osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikiena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak .*

*Aipatutako hitzarmenean jasotako baldintzak izango dira kontratuari dagozkion jarduerak egiten dituzten langileei enplegua emateko gutxieneko baldintzak, nahiz eta hitzarmen hori Langileen Estatutuko 86.3 artikuluaren ondorioz iraungita egon".*

*2.- Aurreko puntuaren arabera, erakunde kontratugileak ezarriko duen lizitazio-prezioa nahikoa izan beharko da enpresek esparru txikieneko hitzarmen kolektibo sektoriala aplikatzeak eragingo duen kostua ordain ahal dezaten, subrogatu beharreko guztirako langile kopurua aintzat hartuz, eta lizitazioan ezartzen den orduko prezioa ezin da inola ere apalagoa izan hitzarmeneko orduko prezioa, gehi gizarte-segurantzako kostuak baino..*

***"El Pleno del Ayuntamiento de Durango decide que a partir de la fecha de adopción del presente acuerdo comenzará con los trámites necesarios para, a la mayor brevedad posible, incluir las siguientes cláusulas en los pliegos de condiciones de los contratos públicos*** *(de obras, de concesión de obras publicas, de gestión de los servicios públicos y de servicios)* ***celebrados por este Ayuntamiento o por sus organismos o entidades dependientes****:*

***1) Cláusula social referente a las condiciones laborales mínimas de las empresas contratistas.***

*Tanto en el anuncio de licitación como en la carátula de los pliegos de cláusulas administrativas de los procedimientos de contratación de las administraciones públicas deberá incorporarse una advertencia de que esa contratación se encuentra sometida a las siguientes condiciones especiales de obligado cumplimiento:*

*"1.- Este contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo y, en particular, a las condiciones establecidas por el último convenio colectivo sectorial del ámbito más inferior existente en el sector en el que se encuadra la actividad de la empresa contratista.*

*Las condiciones recogidas en el texto del referido convenio conformarán las condiciones mínimas en las que podrán ser empleados los trabajadores y trabajadoras que lleven a cabo las actividades objeto del contrato, con independencia de que el mencionado convenio hubiera perdido vigencia por efecto de lo previsto en el art. 86.3 ET".*

*2.- Con arreglo a lo anterior, el precio de licitación establecido por la entidad contratante deberá ser el suficiente para que las empresas puedan hacer frente al coste derivado de la aplicación del convenios sectorial de ámbito más inferior, teniendo en cuenta la totalidad de trabajadores y trabajadoras a subrogar, sin que en ningún caso el precio/hora de licitación pueda ser inferior al precio/hora del convenio más los costes de seguridad social.*

***2) Azpikontratazioari buruzko klausula soziala.***

*1. Lehiaketaren iragarpenean zein herri-administrazioen kontratazio-prozeduren klausula administratiboen pleguetako karatulan ohar bat ezarri beharrekoa izango da, esanez kontratazio hori gutxienik hiru hileko antzinatasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean egiten dela, beste kontrata batekoak izanagatik ere, kontratuko jarduera egiten ari badira; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebehar laboraletan eta Gizarte-Segurantzakikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrei dagokienez.*

*2. Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, klausula administratibo partikularretako pleguetan klausula bat ezarriko da aukera hori arautzeko, eta berariaz aipatuko da hirugarren enpresa horrek jarduera hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharra; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebehar laboraletan eta Gizarte-Segurantzakikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrei dagokienez.*

***3) Zigorrak. Urratzeak. Balizko kontratuaren etetea.***

*Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak kontratuak gauzatzeko baldintza berezi gisa finkatu beharrekoak izango dira, eta hauek gauzatzeko markoan egiaztatu beharko dira. Hauek urratzea betebehar kontraktualen arau-hauste larria izango da, eta ondorioz kontratua eteteko aukera irekiko du*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

***2) Cláusula social referente a la subcontratación.***

*1. Tanto en el anuncio de licitación como en la carátula de los pliegos de cláusulas administrativas de los procedimientos de contratación de las administraciones públicas deberá incorporarse una advertencia de que esa contratación se encuentra sometida a la subrogación de todos los trabajadores y trabajadoras con una antigüedad mínima de tres meses que, a pesar de pertenecer a otra contrata, vengan realizando la actividad objeto del contrato, quedando el nuevo empresario subrogado en los derechos y obligaciones laborales y de Seguridad Social del anterior, incluyendo los compromisos de pensiones, en los términos previstos en su normativa específica, y, en general, cuantas obligaciones en materia de protección social complementaria hubiere adquirido.*

*2. Cuando se prevea la posibilidad de que la empresa adjudicataria contrate con terceros la realización parcial del contrato, los pliegos de cláusulas administrativas particulares incorporarán una cláusula que regule dicha posibilidad y recogerán expresamente la obligación de esa tercera empresa de subrogar a todos los trabajadores y trabajadoras que con anterioridad venían desarrollando esa actividad, quedando el nuevo empresario subrogado en los derechos y obligaciones laborales y de Seguridad Social del anterior, incluyendo los compromisos de pensiones, en los términos previstos en su normativa específica, y, en general, cuantas obligaciones en materia de protección social complementaria hubiere adquirido.*

***3) Sanciones. Incumplimientos. Posible resolución del contrato.***

*Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores deberán establecerse como condiciones especiales de ejecución de los contratos y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución de los mismos. Su incumplimiento constituirá una infracción muy grave de las obligaciones contractuales y podrá dar lugar a la resolución del contrato."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Txanda ohiko puntu baten modura egingo dugu.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: 2015eko apirileko sektore publikoko kontratuen lege berriaren aurreproiektuaz hitz egingo dut. Bertan, mozio honetan aipatzen diren arlo asko hartzen dira aintzat, baina Europako direktibak errespetatuz, betiere.

1- Lege honetako erregulazioa sortu duten helburuak honako hauek dira: hasteko, kalitate-prezio harreman hobea lortzea; horretarako, ohartarazpen berriak sartzen dira kontratazio publikoan, eta horrela, kontratazio-organoak kalitatea, ingurumen-ohartarazpenak, arlo sozialak edo berrikuntza lehenetsiko dute, betiere, lizitazioaren helburua den bizitzaren zikloaren prezioa eta kostuak ahaztu gabe.

2- Arau zorrotzagoak txertatu dira, bai enpresen onurarako, bai langileen onurarako. Arau berriek gai honi buruzko antolamenduak gogortzen dituzte “modu ezohikoan baxuak diren" eskaintzetan, dumping sozialari aurre egiteko eta langileen eskubideak errespeta daitezen bermatzeko. Horrela, laneko legedia betetzen ez duten kontratistak lizitazioetatik kanporatuak izan daitezke.

3- Era berean, beharrekoa da araudi honek zerbitzu publikoen pribatizaziorik ez izatea; izan ere, kontzesio-arau berriak agertzeak ez du izaera aldatzea eragiten. Lege honetara txertatzen da lagapen-kontratuak esleitzearen Direktiba arautzaile berria, Espainiako Zuzenbidean tradizio juridiko luzea duen erakundea, Espainiako arau tradizionalak Europako arau berriekin tapatuz.

4- Lege honetan ezartzen den kontratazio publikoko lege-sistemaren helburua indarrean dauden arauak argitzea da, betiere, segurtasun juridiko handiagoa emate aldera eta kontratazio publikoa Europako eta nazioko politikak ezartzeko tresna gisa erabil dadin lortu nahi du arlo sozialean, ingurumen arloan, berrikuntzan eta garapenean, eta ETE-en sustapenean; eta hori guztia gastu publikoan eraginkortasuna bermatuz eta tratu-berdintasuneko, diskriminaziorik ezeko, gardentasu-

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a organizar los turnos como de costumbre.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Me referiré al anteproyecto de la nueva ley de contratos del sector público de abril de 2015. En él se contemplan muchos de los aspectos que se plantean en esta moción pero respetando siempre las directivas europeas.

1- Los objetivos que inspiran la regulación contenida en la presente Ley son, en primer lugar, el de de conseguir una mejor relación calidad-precio, para lo cual se introducen nuevas consideraciones en la contratación pública, de manera que los órganos de contratación podrán dar prioridad a la calidad, consideraciones medioambientales, aspectos sociales o a la innovación, sin olvidar el precio ni los costes del ciclo de vida del objeto de la licitación.

2- Se introducen normas más estrictas tanto en beneficio de las empresas como de sus trabajadores, de manera que las nuevas normas endurecen las disposiciones sobre esta materia en las denominadas ofertas “anormalmente bajas”, con el objetivo de combatir el dumping social y garantizar que se respeten los derechos de los trabajadores, de manera que los contratistas que no cumplan con la legislación laboral podrán ser excluidos de las licitaciones.

3- Asimismo, se precisa que la presente normativa no conlleva una privatización de los servicios públicos, puesto que el hecho de que aparezcan nuevas reglas concesionales, no implica que se altere su carácter. Se incorpora así a la presente Ley la nueva Directiva reguladora de la adjudicación de los contratos de concesión, institución de larga tradición jurídica en el Derecho español, cohonestando las normas tradicionales españolas con las nuevas normas europeas.

4- El sistema legal de contratación pública que se establece en la presente Ley persigue aclarar las normas vigentes, en aras de una mayor seguridad jurídica y trata de conseguir que se utilice la contratación pública como instrumento para implementar las políticas tanto europeas como nacionales en materia social, medioambiental, de innovación y desarrollo y promoción de las PYMES, y todo ello, garantizando la eficiencia en el gasto público y respetando los principios de igualdad de trato, no

neko, proportzionaltasuneko eta osotasun-printzipioak errespetatuz.

discriminación, transparencia, proporcionalidad e integridad.

5- Kontratu publikoetan arlo sozialeko, ingurumen arloko, eta berrikuntza eta garapeneko ohartarazpenak barne hartzen dira. Horrela, kontratazio-organoari horiek txertatzeko betebeharra ezartzen zaio, baina askatasuna uzten zaio kontratatu bakoitzean zehazki txertatzen dituen ala ez erabakitzeko, esleipen-irizpide gisa edo exekuzioko baldintza berezi gisa. Bi kasuetan, egingo den kontratuaren helburuarekin erlazionatzearen mende egon beharko du txertatzeak.

5- Se incluyen en los contratos públicos consideraciones de tipo social, medioambiental y de innovación y desarrollo. Así, se impone al órgano de contratación la obligación de introducirlas, pero se le deja en libertad para que pueda decidir si las incluye en cada contrato en concreto como criterio de adjudicación o como condición especial de ejecución. En ambos casos, su introducción debe estar supeditada a que se relacionen con el objeto del contrato a celebrar.

6- Gai sozialei dagokienez, enplegu-zentro berezietarako erreserbatutako kontratuak arautzen jarraitzen dute. Hala ere, gizon eta emakumeen artean berdintasun-estandar batzuk, eta desgaitasuna duten pertsonen babes-neurriak betetzen dituztela bermatzen duten enpresen alde egingo da.

6- Respecto de los temas sociales, se siguen regulando los contratos reservados a centros especiales de empleo, si bien se va a favorecer a las empresas que acrediten que cumplen con determinados estándares de igualdad entre hombre y mujer y de medidas de protección de personas con discapacidad.

7- Hau da, ulertzen dut sektore publikoaren kontratazioari buruzko egungo legedian proposatzen den edo aintzat hartuta dagoen guztia, edo sektore publikoko kontratuen lege berriaren aurreproiektuan edo udalean egiten denean aintzat hartuta dagoena.

7- Es decir, entendiendo todo lo que se propone, o bien está contemplado en la actual legislación sobre contratación del sector público, o está contemplado en el anteproyecto de la nueva ley de contratos del sector público, o incluso, ya se hace en el ayuntamiento.

Arau-hausteak edo zigorrak legean aintzat hartuta daude. Beraz, dagoeneko zehaztutako tratamendua dute. Hala ere, pleguetan dagozkien arrazoiak eta zenbatekoak zehaztu daitezke, baina legeak zehaztutako mugen baitan.

Las infracciones o penalidades están contempladas en la ley y, por lo tanto, tienen un tratamiento ya determinado, si bien, sí se pueden explicitar en los pliegos las causas y los importes correspondientes, pero dentro de los límites que explicita la ley.

Arau-hausteen gaian izan ezik, Udala ados dago, eta lege berriaren aurreproiektuak planteatutakoari dagozkion aldaketak aintzat hartzen dituenez, abstenitu egingo gara.

Puesto, que salvo el tema de las infracciones el Ayuntamiento está de acuerdo y puesto que el anteproyecto de la nueva ley ya contemplan las modificaciones respecto a lo planteado, nos abstendremos.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Aurkeztu den testuaren alde gaude. 2015eko maiatzaren 18an legedi-ekimen bati hainbat zuzenketa aurkeztu genizkion Eusko Legebiltzarrean, kontratazio publikoari klausula sozialak txertatzeko. Zuzenketa horiek txertatzeari eta onartzeari esker, itxaropen faltsuak ez sortzeko beharrezko babes juridikoa dago. Klausula sozialak enplegua zuzentzera bideratuta egon daitezke, baina horrez gain, lan

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estamos favor del texto que se ha presentado. El 18 de mayo de 2015 presentamos en el Parlamento Vasco una serie de enmiendas a una iniciativa legislativa para la inclusión de cláusulas sociales a la contratación pública. Gracias a la inclusión y a la admisión de estas enmiendas, existe el respaldo jurídico necesario para que no se creen falsas expectativas. Las cláusulas sociales pueden ir

merkatura txertatzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonak kontuan har daitezen, gizon eta emakumeen artean aukera-berdintasuna susta dadin, eta ingurumeneko, iraunkortasuneko eta irizpide etikoko irizpideak susta daitezen egon daitezke zuzenduta. Uste dut klausula sozial horiek bete dezaketen zeregina oso garrantzitsua dela, eta hori dela eta, aldeko botoa emango dugu.

* Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea): Aldeko botoa emango dugu, planteamenduarekin ados baikaude. Langileen arteko berdintasuna bermatzen emango ditugun pauso guztiak, kontratazio-iturria edozein izanda ere, garrantzitsua, beharrezkoa eta lehentasunezkoa iruditzen zaigu.

Lehen puntua zertxobait mugatuko duen paragrafo txiki bat txertatzea gustatuko litzaiguke. Honako hau da paragrafoa: "*Jarduera edo zerbitzu hori egingo duten pertsonen lan-baldintzak sektoreko hitzarmenen gainetik geratzen direnean, lan-baldintza horiek inolaz ere beherantz ez daitezela aldatu*".

* Maeztu Perez jaunak (EH Bildu): Kasu honetan ELAk eskatzen diguna da hitzetatik ekintzara pasatzea. Askotan alderdi politikoei ahoa betetzen zaigu langileen eskubideak aldarrikatzerakoan, Rajoyk estatu mailan egindako erreforma laboralen kontra egiteko edo Europan ez dakit zer neurriren kontra egiteko, baina gero, aukera daukagunean gurean langileen eskubideak bermatzen dituzten neurriak hartzeko, ez dugu halaxe egiten. Eta hori da, hain zuzen ere, hemen eskatzen dena, alde batera uztea diskurtsoak eta hitzetatik ekintzetara pasatzea. Eta ekintza zehatzak dira klausula sozialak.

Kasu honetan, klausula sozialak eskatzerako orduan, eskatzen digute sektorearen eta tokian tokiko hitzarmena aplikatzeko bermea, enpresa aldatuz gero surrogazio laborala ematea eta zigorrak ezartzea arauak betetzen ez dituzten enpresentzat; hiru eskaera zehatz eta, gure ustez, logikoak eta onartu behar direnak.

dirigidas a promover tanto el empleo como que las personas que lo tienen más difícil para acceder al mercado laboral se les tenga en cuenta, promover la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, promover criterios medioambientales, de sostenibilidad, criterios éticos... Creo que la labor que puedan cubrir estas cláusulas sociales es clave y por todo ello votaremos a favor.

* Concejala Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea): Votaremos a favor porque estamos de acuerdo con el planteamiento. Todos los pasos que demos en garantizar la igualdad entre los trabajadores, sea cual sea la fuente de contratación nos parece importante, necesario y prioritario.

Nos gustaría incluir un pequeño párrafo que acote un poco, en el primer punto. El párrafo sería el siguiente: "*Cuando las condiciones laborales de las personas que van a realizar esa actividad o servicio queden por encima de los convenios sectoriales, a los cuales haga referencia, que en ningún momento se hagan modificaciones a la baja de esas condiciones laborales*".

* Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu): En este caso, lo que ELA nos pide es que pasemos de las palabras a las acciones. Muchas veces, a los partidos políticos se nos llena la boca al reivindicar los derechos de los trabajadores cuando hacemos frente a la reforma laboral de Rajoy a nivel estatal o a alguna medida de la Unión Europea; sin embargo, cuando tenemos la oportunidad de tomar medidas que garanticen los derechos de los trabajadores de nuestro entorno, no las tomamos. Y eso es precisamente lo que se nos pide aquí: que nos dejemos de discursos y que pasemos de las palabras a las acciones. Y las cláusulas sociales son acciones concretas.

En este caso, pedirnos cláusulas sociales significa que garanticemos que se aplica el convenio local y del sector que corresponde; que si la empresa varía se lleve a cabo una subrogación laboral; y que se impongan sanciones a las empresas que no cumplan las normas. Se trata de tres peticiones concretas que, a nuestro entender, son lógicas y deben aceptarse.

Seguruenik hemen denok esango dugu ados gaudela klausula edo mota honetako neurriak aplikatzearekin, baina egia da kontratazio publikoan ematen den errealitatean ez dela hori egiten. Adibidez, Abiadura Handiko Trenaren obretan badakigu zeintzuk izan diren aplikatutako lan baldintzak, hau da, Portugaletik edo Madriletik etorritako enpresak dira, euren lan baldintzak dituzte, eta ez dituzte errespetatu ez Bizkaian ez Gipuzkoan sektore horretan dauden hitzarmenak. Beraz, uste dugu beharrezkoa dela mota honetako neurriak aplikatzea, bestela prekarietate laborala ateratzen da garaile. Hemen bertan, diru publikoarekin eta politika publiko konkretuekin ari gara dumping soziala ahalbideratzen.

Probablemente todos diremos que estamos de acuerdo con aplicar estas cláusulas o este tipo de medidas, pero es cierto que, en realidad, en la contratación pública no se actúa así. Por ejemplo, sabemos en qué condiciones de trabajo se están haciendo las obras del Tren de Alta Velocidad: vienen empresas de Portugal o de Madrid con sus propias condiciones de trabajo, y no respetan los convenios que esos sectores tienen en Bizkaia o en Gipuzkoa. Por lo tanto, creemos que es necesario aplicar ese tipo de medidas porque, de lo contrario, gana la precariedad laboral. Aquí mismo, sin ir más lejos, estamos permitiendo un *dumping* social con dinero público y con políticas públicas concretas.

Bestalde, arraro egiten zait Alderdi Sozialistako Bozeramaleari entzutea guztiz ados dagoela; gaur bertan, Gasteizko Legebiltzarrean, hain zuzen ere, ELAk aurkeztutako ekimen honen kontra bozkatu dutenean enplegu batzordean. Azken finean, gaur ELAk hona ekarri duena da bere garaian herri ekimen legegile baten bitartez Gasteizko legebiltzarrean martxan jarritako ekimen baten beste ondorio bat. Eta, zoritxarrez, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak ezetz esango diote herri ekimen legegile horri, legez arautzeko klausula sozial hauek era orokor baten Euskal Autonomi Erkide osorako.

Por otra parte, me resulta raro oír decir a la Portavoz del Partido Socialista que está totalmente de acuerdo; no en vano, hoy mismo han votado en contra de la iniciativa de ELA en la comisión de empleo del Parlamento de Gasteiz. Al fin y al cabo, lo que ELA trae hoy aquí no es más que otra consecuencia de una iniciativa puesta en marcha en el Parlamento de Gasteiz, a través de una iniciativa legislativa popular. Por desgracia, el Partido Nacionalista Vasco, el Partido Popular y el Partido Socialista van a rechazar esa iniciativa legislativa popular, que no tiene más objetivo que regular por ley y de forma general esas cláusulas sociales para toda la Comunidad Autónoma Vasca.

Beraz, nahiko bitxia da: askotan diskurtsoetan denetarik esan dezakegu baina gero, ekintzetara pasatu behar garenean, ez gara kapaz neurriak hartzeko langileen eskubideak errespetatzeko.

Así pues, es curioso: decimos de todo en los discursos, pero después, cuando hemos de pasar a la acción, no somos capaces de tomar medidas para respetar los derechos de los trabajadores.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: EAJren izenean nik neuk hitz egingo dut puntu honetan, hain zuzen ere, harrituta utzi nautelako EHBilduren Bozeramaleak esandako berbak.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En este punto hablaré yo misma en nombre del PNV, porque me ha sorprendido lo que ha dicho el Portavoz de EHBildu.

Leporatu digu Legebiltzarrean gauza bat bozkatu izana eta hemen beste bat, berari askotan entzun diodanean autonomia falta dagoela alderdietan, tokian tokiko erabakia hartu behar dela eta norberaren arazoei aurre egiteko autonomia maila udal mailan egon beharko litzatekeela.

Nos ha acusado de haber votado una cosa en el Parlamento y de haber votado aquí otra, a pesar de haberle oído decir en muchas ocasiones que falta autonomía en los partidos, que las decisiones deben tomarse a nivel local y que la autonomía para hacer frente a los problemas de cada uno debe situarse a nivel municipal.

Hori dela eta, kontuan hartu izan dugu mozio honen aurrean zein den Durangoko udalaren egoera, eta esan beharra dago klausula sozialei begira, azken kontratuetan, jaso egin direla gaur egun euren eskubide moduan langileek dauzkaten baldintzak gure administrazio pleguetan, eta horrek ezinbesteko baldintza moduan eskatzen direla.

Es por eso que, con esta moción, hemos tenido en cuenta en qué situación está el Ayuntamiento de Durango. De hecho, hay que decir que, en lo que respecta a las cláusulas sociales, se han recogido en los pliegos administrativos de los últimos contratos las condiciones de trabajo que los trabajadores deben tener por derecho; además, se han recogido como condición imprescindible.

Badakit hau mitina izan dela hedabideei begira, baina udal honetako errealitatea oso bestelakoa da, nik badakit Durangoko udalean, azken pare bat urteetan gutxienez, zer egin dugun esparru honetan, eta egin duguna da esfortzu garrantzitsua azpikontratatutako baldintzetan jartzeko, ezinbesteko baldintza moduan, azpikontratatutako langileen baldintzak izan behar direla, gutxienez, ordura arte dauzkatenak.

Sé que esto ha sido un mitin de cara a los medios de comunicación, pero la realidad de este Ayuntamiento es muy distinta. Yo sé qué hemos hecho en el Ayuntamiento de Durango en ese ámbito, al menos durante los últimos dos años; no en vano, se ha hecho un gran esfuerzo para que las condiciones laborales de los trabajadores subcontratados sean, al menos, las que tenían hasta el momento, y lo hemos hecho de forma que sea una condición imprescindible.

Surrogazioari buruz badakit hemen hiru hilabetera mugatzen dela, nahiz eta Udalhitzen sei hilabetekoa egon sinatuta. Baina ikusten bada hobe dela hiru hilabetera pasatzea ez daukagu inolako arazorik. Gure aldeko bozka aurreratzen dut.

En cuanto a la subrogación, sé que aquí se limita a tres meses, a pesar de que en Udalhitz se firmó que fueran seis. Pero si se ve que es mejor pasarla a tres meses, nosotros no tenemos ningún problema. Adelanto que votaremos a favor.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: EH Bilduko ordezkariak egin duen diskurtsoak harritzen nau; izan ere, bazekien Alderdi Sozialistak, 2014ko uztailaren 26an, Parlamentuan, zuzenketa bat txertatu zuela herri-legediaren ekimenean jaso zedin klausula sozial jakin batzuen txertaketa.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Me sorprende el discurso que ha hecho el representante de EH Bildu sabiendo que el Partido Socialista, en el Parlamento, el 26 de julio de 2014, introdujo una enmienda para que se recogiera en la iniciativa legislativa popular la inclusión de determinadas cláusulas sociales.

Berriro ere nabarmendu nahi dut Udal hau eredu dela duela denbora askotik hona. Komunikabideei begira, nahi duguna esan dezakegu, baina ekintzak argiak dira; azken pleguak, txertatu diren klausulak eta Udal honen funtzionamendua.

Quiero reiterar que este Ayuntamiento viene dando ejemplo desde hace muchísimo tiempo. De cara a los medios podemos decir lo que queramos pero los hechos están bien claros, los últimos pliegos las cláusulas que se han introducido y la manera de funcionar de este Ayuntamiento.

* **Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea)**: Ostera ere elkarrizketa aurkeztu den mozioan txertatzea eta lehen esan duguna berriro ere esatea gustatuko litzaiguke. Garrantzitsua iruditzen zaigu eskubideen berdintzean zentratzea, zuzeneko kontratazioa edo zeharkako kontratazioa izanda ere, langileek laneko eskubide horiek bermatuta izatea; izan ere, gutxieneko baldintzetan ordezkatuko dira probintziako

* Concejala **Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea)**: Nos gustaría volver a centrar el debate en la moción que se ha presentado y reiterar lo que ya hemos dicho antes. Nos parece importante centrarnos en la equiparación de derechos, sea la contratación directa o indirecta, que los trabajadores y trabajadores tengan garantizados esos derechos laborales, que van a ser subrogados en las condiciones míni-

hitzarmenaren gainetik daudenean. Garrantzitsua iruditzen zaigu hori gehitzea "zer gerta ere" kasuak saihesteko. Segurtasuna, babesa eta laneko eskubideen parekatzea bermatzeko eman ditzakegun pauso guztiak positiboak iruditzen zaizkigu.

mas cuando éstas están por encima del convenio provincial. Nos parece importante añadirlo para evitar "por si acasos". Todos los pasos que podamos dar para garantizar esa seguridad, esa protección y esa equiparación de derechos de los trabajadores nos parece siempre positivo.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Guri oso ondo iruditzen zaigu Gasteizen Eusko Alderdi Jeltzaleko eta Alderdi Sozialistako ordezkariek gauza bat bozkatzea eta hemen beste bat, guk oso argi daukagu berdina bozkatzen dugula Gasteizen eta Durangon edo beste edozein lekutan klausula sozialen inguruan.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: A nosotros nos parece muy bien que los representantes del Partido Nacionalista Vasco y del Partido Socialista voten una cosa en Gasteiz y aquí otra cosa; en lo que a las cláusulas sociales se refiere, tenemos muy claro que nosotros votamos lo mismo en Gasteiz, en Durango y en cualquier otro lugar.

ELAk horregatik sartu ditu mozioak herrietan, Gasteizen abiaraziko den dinamika horren baitan, hara eramateko zelan herrietan alde bozkatzen eta onartzen ari diren eta ez diren gai Legebiltzarrean lege bat Autonomi Erkidego osorako onartzea.

Por esa misma razón, ELA está presentando las mociones en los municipios, porque vista la dinámica que va a tener en Gasteiz, no se entiende cómo puede ser que en los pueblos se esté votando a favor y se estén aprobando, y que en el Parlamento no sean capaces de aprobar una ley para toda la Comunidad Autónoma Vasca.

Eta Alderdi Sozialistako Bozeramaileari gogoratu nahi diot mozio hau martxan jarri duen sindikatuak banatutako esku orrietan agertzen dena: "*El PSE y el PNV entierran los derechos laborales de miles de trabajadores*" Hori da eurek egiten duten irakurketa. Baina berriz esango dut: oso ondo ikusten dut Gasteizen gauza bat bozkatzea eta hemen beste bat. Guk, normalean, horrelako gaietan berdina bozkatzen dugu leku guztietan.

Y quiero recordarle a la Portavoz del Partido Socialista la información que aparece en las octavillas que va a repartir el sindicato que ha preparado esta moción: "*El PSE y el PNV entierran los derechos laborales de miles de trabajadores*". Esa es su lectura. Pero lo voy a decir una vez más: me parece muy bien que se vote una cosa en Gasteiz y otra aquí. Normalmente, en estos temas, nosotros votamos lo mismo en todos los sitios.

Egia da hemen aipatzen diren gauza batzuk Durangon aplikatzen direla, baina ez jarri eredutzat Durangoko udala, dakigunean, momentu honetan Lan Ikuskaritzaren isun bat daukagula 2013. urtean egindako enplegu-planaren ondorioz, udalean zuek onartutako %40ko behin behinekotasuna daukagunean.

Es cierto que algunas de las cosas que se mencionan ya se aplican en Durango, pero no se puede poner al Ayuntamiento de Durango como modelo, dado que tenemos una multa de la inspección de trabajo por el plan de empleo que se hizo en 2013, y dado que tenemos en el Ayuntamiento una temporalidad del 40 %, aprobada por vosotros.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Beharbada orain pentsatu beharko genuke gure bozkaren esanahia edo zentzua. Gure asmoa izan da baiezko bozka ematea baina EH Bilduko Bozeramaleak begiak zabaldu dizkigu esanez mozio honen edukia ez dela garrantzitsuena baizik eta eduki honen alde egitea EAJk eta Alderdi Sozialistak udaletan palanka egiteko gero Gasteizko

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Quizá deberíamos replantearnos el significado o el sentido de nuestro voto. Nuestra intención era votar a favor, pero el Portavoz de EH Bildu nos ha abierto los ojos cuando ha dicho que el contenido de esta moción no es lo más importante, sino estar a favor del contenido en los ayuntamientos para que después el PNV y el Partido Socialista hagan palanca en el Parla-

parlamentuan, beraz, ELAk ez dauka honetan, antza, inongo interesik langileen eskubideen munduan, interes politiko hutsa da hemen dagoena.

Hemen dagoenez ELAko ordezkari bat, nik eskertuko nuke bost minutuko geldialdia egitea honek gauza guztiak argi geratzeko, Herriaren Eskubidearen ekarpena barneratzeko eta hori guzti hori argitzen dugunean bueltatuko gara eta ikusiko dugu zer bozkatuko dugun.

-- ***Etenaldia amaitu, batzarrak jarraitu egiten du.***--

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu.

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrato botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

**BOST.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, BIZKAIBUSEN A3993 LINEAK DURANGOKO TABIRA AUZOAN GERALEKUA IZATEKO ESKAERARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016001860, 2016KO MARTXOAREN 10EKOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Bizkaibusen A3993 lineak Durangoko Tabira Auzoan geralekua izateko eskaerari buruzkoa. Sarrera Erregistroa 2016001860, 2016ko martxoaren 10ekoa, eta honako hau dioena:

mento de Gasteiz. Por tanto, parece ser que, en esta cuestión, ELA no tiene el más mínimo interés en los derechos de los trabajadores; aquí solo existe un interés político.

Ya que ha acudido un representante de ELA, agradecería que interrumpiéramos el pleno cinco minutos para que nos quede todo claro y para asimilar la aportación de Herriaren Eskubidea. Cuando aclaremos todo, reanudaremos el pleno y veremos qué votamos.

-- ***Finalizado el receso, se reanuda la sesión***.--

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a realizar la votación.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: NINGUNA.
- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto íntegro de la Moción anteriormente transcrita.

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA A LA HABILITACIÓN DE UNA PARADA DE AUTOBÚS DE LA LÍNEA A3993 DE BIZKAIBUS EN EL BARRIO DE TABIRA DE DURANGO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016001860, DE 10 DE MARZO DE 2016).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo municipal Euskal Herria Bildu, relativa a la habilitación de una parada de autobús de la línea A3993 de Bizkaibus en el barrio de Tabira de Durango, con Registro de Entrada nº 2016001860, de 10 de Marzo de 2016, del tenor literal siguiente:

"*Tabirako auzokideek ia Durangoko beste puntan daukate autobus geltokia, baita osasun zentroa bezalako zerbitzu batzuk ere. Ibiltzea osasungarria bada ere, distantzia luzea izan daiteke zenbait pertsonentzat, nagusiak kasu.*

*Aldiz, Bizkaibuseko Durango-Bilbo A3933 autobus linearen ibilbidea Mañariraino luzatu zenetik, autobusak Tabiratik bertatik pasatzen dira, Durangoko Olleria eta Magdalena geltokietara bidean. Beraz, autobus linea horrek Tabiran geralekua izateak mesede handia egingo lieke Tabirako auzokideei, bai handik zuzenean Bilbora joateko, bai osasun zentrora edo Madalena ingurura gerturatzeko.*

*Oso diru gutxirekin, askoz gehiago aprobetxatu daiteke autobus linea horrek ematen duen zerbitzua. Horregatik guztiagatik,*

> *Durangoko osoko bilkurak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesiorako Sailari, Bizkaibuseko A3933 lineak Durangoko Tabira auzoan geralekua izatea eskatzen dio*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Gaurko mozioa zentzuzkoa eta oso egingarria da. Ez dugu guk asmatu, auzo bilera egin genuenean Tabiran auzokideek eskaera hau egin ziguten, hau da, nahiko urrun daukate bai zerbitzuak eta baita autobus geltokia ere (Madalenakoa). Eta linea hori, Mañariraino luzatu zenetik, Tabira auzotik pasatzen da.

Kontua ez da autobus linea berezi bat jartzea baizik eta Tabiratik bertatik pasatzen den autobusari geraleku bat egitea. Eskaria oso sinplea da, dagokion instituzioari, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea autobus linea horrek geltokia izatea Tabira auzoan eta, kostu handirik gabe, zerbitzua emango zaio Tabira auzokideei.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Foru Aldundiari dagokio Bizkaibusen geltoki berri bat gaitzeko erabakia, eta geltokien azpiegiturei eta beste berri

"*Los vecinos y vecinas de Tabira tienen lejos de su entorno tanto la parada de autobús como el centro de salud y otros servicios. Aunque el andar es saludable, puede que para algunos, especialmente para las personas mayores, sea una distancia considerable.*

*En cambio, desde que el recorrido de la línea de autobús A3933 se extendió hasta Mañaria, los autobuses pasan por el mismo Tabira en dirección a las paradas de Olleria y Magdalena. Es por ello que si hubiera una parada de autobús en Tabira sería ventajoso para los vecinos de Tabira, tanto para los que se dirijan hacia Bilbao como para los que vayan hacia el Centro de Salud o hacia la zona de Magdalena.*

*Con una pequeña inversión se conseguiría un mayor aprovechamiento del servicio que ofrece dicha línea de autobús. Por todo ello,*

> *Se solicita al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia que habilite una parada de autobús de la línea A3993 de Bizkaibus en el barrio de Tabira de Durango*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: La moción de hoy es razonable y muy factible. No nos la hemos inventado vosotros; celebramos una reunión vecinal en Tabira, y lo solicitaron los vecinos, porque les quedan bastante lejos tanto los servicios como la parada de autobús (la de la Madalena). Y desde que se amplió hasta Mañaria, esa línea pasa por el barrio de Tabira.

La cuestión no es crear una línea de autobús especial, sino poner una parada para el autobús que pasa por allí. Es una petición muy simple; la institución competente, es decir, la Diputación Foral de Bizkaia, podría poner una parada para esa línea de autobús y prestar ese servicio a los vecinos de Tabira sin gran coste.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: La decisión de habilitar una nueva parada de Bizkaibus es de Diputación, y está elaborando un informe

batzuen ezarpenari (beharrezkoak izanez gero) buruzko txosten bat ari da garatzen. Txosten hori egin arte itxarotearen aldekoak gara, eta horren arabera, proposatutakoa eskatuko dugu.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Proposamen honen ildotik Foru Aldundiarekin jarri ginen harremanetan eta aipatutako geltokirako txostena eskatu genuen. Txostena aldekoa da, eta uneotan, gauzatzen ari dira; hain zuzen ere, Foru Aldundiko alderdi teknikoa gurearekin harremanetan jarri da, hau da, mugikortasun teknikariarekin, eta martxan jartzen ari dira.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Guri oso egokia iruditzen zaigu mozioa eta horren aldeko botoa emango dugu. Tabiraz hitz egiten dugu, baina inguruko auzoak izango liratekeenak bildu nahiko genituzke: Tabira, San Fausto, San Roke, Aramotz, Juan Itziar, eta mozio horri beste atal bat txertatu nahiko genioke, ahal izanez gero, barne-garraio sistema baten azterketa.

Autobus-geltokiei osagarri moduko bat egin nahiko genieke eta Durangoko oinarrizko zerbitzuetara iristeko zailtasunak dituzten pertsona horientzat guztientzat zer sistema ezar daitekeen ikusi nahiko genuke.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure bozka aldekoa izango da.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Pozten gara erakutsitako diligentziaz. Herriaren Eskubidearen Bozeramaileak eskatu du beste puntu bat sartzeko eta esan behar dugu Tabiran dagoen arazoa beste auzo batzuetan ere ematen dela; hori ere pendiente dago eta agian egokia izan daiteke egitea ikerketa bat ea zelan eman daitekeen zerbitzua auzo horiei. Beraz, ondo ikusten dugu bigarren puntu hori sartzea.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Guztiz ados gaude durangar guztiek zerbitzu posible guztiak eskura eta baldintza onenetan izan beharko lituzketela esaten dugunean, baina horretarako unea den edo ez erabakitzeko orduan, Foru Aldundia

sobre las infraestructuras de las paradas y el establecimiento de otras nuevas, si son necesarias. Abogamos por esperar a la elaboración de dicho informe, y a la vista del mismo, solicitaremos la que se propone, si no se contempla.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nos pusimos en contacto con Diputación a raíz de esta propuesta y solicitamos un informe para dicha parada. El informe es favorable y en estos momentos ya se está llevando a cabo, de hecho, ya se han puesto en contacto la parte técnica de Diputación con la nuestra, que es el técnico de movilidad, y se está poniendo en marcha.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: A nosotros nos parece muy apropiada la moción y vamos a votar a favor. Se habla de Tabira pero queríamos englobar lo que serían los barrios periféricos, Tabira, San Fausto, San Roke, Aramotz, Juan de Iciar e incorporar a esa moción un apartado más, si puede ser, el estudio de un sistema interno de transporte.

Querríamos hacer un especie de complemento a las paradas de autobús y ver qué sistema se puede adoptar para todas esas personas que tienen dificultades para acceder a los servicios básicos de Durango.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Nos alegramos de la diligencia mostrada. El Portavoz de Herriaren Eskubidea ha solicitado que se incluya otro punto, y hay que decir que el problema que existe en Tabira también existe en otros barrios. Eso también queda pendiente, y quizá sería adecuado investigar cómo se les puede prestar el servicio a esas zonas. Así pues, nos parece bien incluir también ese segundo punto.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Estamos totalmente de acuerdo en que todos los durangueses cuenten con todos los servicios posibles y en las mejores condiciones, pero la postura de que sea el momento o no está basado en que Diputación ya está estudiando este asunto

gai hori aztertzen ari da eta uste dugu amaitu arte itxaron behar dela.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Mozioari beste puntu bat gehitzeko egin den proposamenari dagokionez, guk azterketa teknikoa egiteko asmoa azaldu dugu, eta martxan da dagoeneko. Uste dut Bozeramaileen Batzordean aurkeztu behar zela guk eztabaida dezagun eta denbora bat izan dezagun aztertu ahal izateko. Mozioa manten dadin eta hurrengo udalbatzarako ekartzeko eskatuko nuke.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gure proposamena barne-garraio sistema baten azterketa txertatzea izan zen; hau da, azterketa bat txertatzea aukerak eta alternatibak aztertzeko. Ikusi nahi duguna da inguruko auzo hauetan beste alternatiba sinple batzuk badauden eta kostu gutxirekin talde horiengana irits gaitezkeen.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Zalantza bat daukat Herriaren Eskubideak esandakoaren inguruan. Ulertzen dut mozioak beste puntu bat izango duela eta, beraz, eskatuko nuke zehaztea zer jasoko litzatekeen puntu horretan, ea Durangoko udalak egin beharreko gauza bat izango litzatekeen edo hirugarren bati eskatuko diogun.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Gure aldetik ez daukagu arazorik edo momentu honetan sartzeko bigarren puntu bezala edo uzteko beste pleno baterako.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Azterketarena txertatu nahi genuen, baina hobetu nahi badugu, beste udalbatza baterako utz genezake eta orduan definituko genuke zehazki nola egin, baliabideak ikusi... Hurrengo udalbatzarako, gehiago egiteko konpromisoa hartuko dugu.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ardura ez bazaizue nik eskertuko nuke batzordetik ere pasatzea. Batzordean bertan zehaztasun gehiago egian ahal dira. Nik uste dut batzordean bertan errazago ikusi ahal dela zer den onena, ze azterketa mota egin ahal den, egin behar bada,

y consideramos que hay que esperar a que terminen.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En cuanto a la propuesta que se ha hecho de añadir a la moción otro punto, nosotros hemos planteado el estudio técnico, y se está llevando a cabo. Yo creo que se tenía que haber presentado en la Junta de Portavoces para que lo podamos debatir y por lo menos darnos tiempo para estudiarlo. Yo pediría que se mantenga la moción y que para el siguiente pleno se traiga.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Nuestra propuesta era incorporar el estudio de un sistema interno de transporte, es decir, la incorporación de un estudio para ver las posibilidades y las diferentes alternativas. Queremos ver si en estos barrios periféricos hay otras alternativas que puedan ser sencillas y que con poquito coste podamos llegar a estos colectivos.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Tengo una duda sobre lo expresado por Herriaren Eskubidea. Entiendo que la moción va a recoger otro punto, y por eso pediría que se concretase lo que se va a expresar, para ver si es algo que tendría que hacer el Ayuntamiento de Durango o si se lo tenemos que solicitar a un tercero.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Por nuestra parte no hay ningún problema: podemos incluirlo ahora como segundo punto o dejarlo para otro pleno.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Queríamos incorporar lo del estudio pero si queremos afinar podemos dejarlo para otro pleno y definirlo concretamente, cómo hacerlo, ver los recursos... Nos comprometemos para el siguiente pleno a elaborarlo más.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Si no os importa, agradecería que pasara también por la comisión. Allí mismo se podrán concretar más detalles. En mi opinión, en la comisión será más fácil ver qué es lo mejor, qué tipo de análisis hay que hacer —si es que hay que

baliagarriak diren dauzkagun datu eta txostenak, gehiago eskatu behar badira... Pentsatzen dut hortik abiatuta gero plenora ekarri ahal dela.

Nik egingo nituzke urrats bi: lehenengoa batzordean aztertu eta ondoren plenora ekarri, denbora daukagulako horretarako.

Beraz, bere horretan geratzen da mozioa, eta txanda guztiak bukatu direnez bozketara pasatuko gara.

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrato botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

hacer alguno—, qué datos e informes de los que disponemos son válidos y si hay que solicitar otros, etc. Creo que, si lo hacemos de ese modo, después podremos traerlo al pleno.

Consideraría dos pasos: el primero, analizarlo en la comisión; y el segundo, traerlo al pleno, porque tenemos tiempo suficiente.

Por consiguiente, la moción queda como está, y dado que han finalizado todos los turnos, pasamos directamente a la votación.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: NINGUNA.
- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto íntegro de la Moción anteriormente transcrita.

**SEI.- HERRIAREN ESKUBIDEA UDAL TALDEAREN MOZIOA, HERRI-ADMINISTRAZIOAN IRAKURKETA ERRAZA (IE) APLIKATZEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016001862, 2016KO MARTXOAREN 10EKOA).**

* **Varela Dorrio jaunak (SQ-2D)** irakurri egiten du Herriaren Eskubidea Taldearen izenpeturiko mozioa, herri-administrazioan irakurketa erraza (IE) aplikatzeari buruzkoa. Sarrera Erregistroa 2016001862, 2016ko martxoaren 10ekoa, eta honako hau dioena:

"***Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza*** *elkartea sarritan aintzat hartzen ez den publiko batekiko sentsibilizaziotik jaio da: irakurtzeko edo irakurritakoa ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak. Kolektibo zabala da; izan ere, herritarren % 30ek izan dezake mota horretako arazoren bat.*

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL HERRIAREN ESKUBIDEA RELATIVA A LA APLICACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA LECTURA FÁCIL (LF). (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016001862, DE 10 DE MARZO DE 2016).**

* El Concejal **Sr. Varela Dorrio (SQ-2D)** da lectura a la Moción presentada por el Grupo Municipal Herriaren Eskubidea, relativa a la aplicación en la administración pública de la lectura fácil, con Registro de Entrada nº 2016001862, de 10 de Marzo de 2016, del tenor literal siguiente:

"***Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza*** *surge de la sensibilización hacia un público a menudo desatendido: las personas con dificultades de lectura o de comprensión lectora. Este es un colectivo amplio, que puede alcanzar al 30% de la población.*

*Irakurketa Erraza irakurketaren demokrazia printzipioan eta irakurketaren bidezko gizarteratzean oinarritzen da. Zailtasunak dituzten pertsonek informazioa eskuratzea da helburua, eta, horretarako, ardura handiz sortutako testuak erabiltzen dira, irakurketa edo ulermen arazoak dituzten pertsonek testuok irakurri eta ulertu ahal izateko.*

*Basado en el principio de la democracia lectora, y de la integración social, a través de la lectura, la Lectura Fácil (LF) es una vía que permite la accesibilidad a la información, mediante documentación elaborada con especial cuidado para que puedan leerlos y comprenderlos personas con dificultades lectoras y/o de comprensión.*

*Liburutegien eta Liburuzainen Elkarteen Nazioarteko Federazioak (IFLA) irakurketa erraza ahalbidetzeko jarraibideak argitaratu zituen 1997an. Jarraibide horietan, irakurketa errazeko testuek izan beharreko forma eta edukien gomendioak ageri dira, eta baita, edizio lanari, argitaratze prozesuari eta marketinari buruzkoak ere.*

*Una serie de directrices internacionales publicadas en 1997 por la IFLA (Federación Internacional de Asociaciones de Bibliotecarios e Instituciones) definen las pautas básicas que deben guiar la elaboración de textos de lectura fácil en cuanto a su forma y contenido. Incluyen también orientaciones relativas a las tareas de edición y al proceso de publicación y marketing.*

*68/2000 dekretuak, apirilaren 11koak, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikin eta informazio komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak batzen ditu. Hona hemen IV. eranskinean jasota dagoena:*

> ***4.5. artikulua** – Informazioa erraz ulertzeko hizkuntzan emango da. Irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat informazioa ulertezin edo nahasgarri bihur dezakeen esaera, itzulinguru eta perifrasiri kez erabiltzea gomendatzen da.*

*En el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad podemos leer en el ANEJO IV:*

> ***Artículo 4.5.**- La información que se transmita será accesible en un lenguaje fácilmente comprensible. Como recomendación se evitará la utilización de frases hechas, circunloquios y perífrasis que hagan que la información sea incomprensible o equívoca para personas con dificultad lectora o de comprensión.*

***APLIKAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN***

*Sarritan, Administrazio publikoek igortzen dituzten xedapenak, erabakiak eta komunikazioak ez dira mezu horren hartzaile izan behar diren herritarrek ulertzeko errazak izaten.*

*Herritarrekin arduratzen den administrazioa tresna egokiak ematen ahalegindu behar da, horrela, informazioa eta ezagutzak guztiengana heldu daitezen. Udalak herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak izanik, tresna horiek eraginkor izateko saiakera egin behar dute.*

*Ildo horretan garatu da administrazioko hizkuntza ulerterrazagoa izateko idazkuntza baten aldeko mugimendua, edukiak gehiago eta hobeto ulertzeko helburuarekin. "Irakurketa Erraza" deitutakoaren barruan, mugimendu horrek esamolde erraz, argi eta zuzenak erabiltzea bultzatu nahi du,*

***APLICACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA***

*Las disposiciones, resoluciones y comunicaciones de todo tipo que emanan de las Administraciones Publicas, en muchas ocasiones no son fáciles de entender por el conjunto de la ciudadanía a la que van destinadas.*

*Una administración que se preocupe por los ciudadanos y las ciudadanas, ha de incidir para proporcionar los instrumentos necesarios, de tal manera que el conocimiento y la información lleguen a todos y todas. Los Ayuntamientos como la administración más cercana a la ciudadanía, deben ahondar para conseguir hacer efectivos esos instrumentos.*

*En este sentido, se desarrolla el movimiento favorable a un modo de redacción de la documentación administrativa más fácil de comprender, buscando el mayor y mejor entendimiento de su contenido. Este movimiento, encuadrado en lo que se denomina "Lectura Fácil",*

*informazioa helarazteko eduki horien berri izan behar duten irakurleei (zerbitzu emaile publikoak eta herritarrak).*

*Irakurketa Erraza irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei bidea errazteko tresna da. Onuradun nagusiak adimen-ezgaitasuna eta jokabide-nahasmendua duten pertsonak dira, baina, era berean, oso erabilgarria da pertsona nagusientzat, umeentzat, analfabetismo funtzionala dutenentzat, gure hizkuntzak gutxi menderatzen dituzten atzerritarrentzat, etab.*

*Beraz, hizkuntza argi, erraz eta soila erabili gura da, arrazoi hauengatik:*

*Pertsonek gobernutik datorren informazio argi eta zehatza behar dute, euren eskubideak ezagutu eta egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko, modu erraz eta azkar baten, gastu gehigarririk sortu barik.*

*Horrez gain, dokumentu argi eta zuzenak behar ditugu, herritarrek errore barik eta argibide beharrik barik bete ahal izateko.*

*Pertsonei ez badiegu administrazioarekin duten harremana errazten, zaila izango da jarrera partehartzailea izatea.*

*Horregatik guztiagatik, honako akordioa proposatzen dugu:*

1. ***Durangoko Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kontuan har ditzala herritarrek hizkuntzarekiko dituzten beharrak, udal araudiak eta administrazioko jarduerak idazterakoan eta zabaltzerakoan.***

2. ***Durangoko Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio beharrezko neurriak hartu daitezela, aipatutako dokumentuak idazteko ardura duten profesionalek berariazko prestakuntzarekin trebatzeko.***

3. ***Durangoko Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio erabili ditzala irakurketa erraza lortzeko irizpideak udal dokumentu garrantzitsuak idazterakoan, edo irakurketa errazerako bertsioak jar ditzala osagarri legez.***

*promueve la utilización de expresiones simples, claras y directas, para trasladar la información que las y los lectores (servidores públicos y ciudadanos) necesitan conocer.*

*Se convierte en un instrumento que consigue hacer accesible la lectura a personas con dificultades lectoras. Los primeros beneficiarios son las personas con discapacidad intelectual y con trastornos del comportamiento, pero resulta muy útil para personas mayores, niños y niñas, personas con analfabetismo funcional, personas extranjeras con bajo conocimiento de nuestras lenguas, etc.*

*Se persigue por lo tanto la utilización de un lenguaje claro, fácil y sencillo ya que:*

*Las personas necesitan información clara y precisa de su gobierno para conocer y ejercer sus derechos, y cumplir con sus obligaciones de manera sencilla, ágil y sin que le genere gastos adicionales.*

*Igualmente, se necesitan documentos claros y directos, que permitan ser cumplimentados sin errores y sin necesidad de aclaraciones.*

*Si a una persona no se le facilita la relación con la Administración, difícilmente tendrá una posición participativa.*

*Por todo ello se propone el siguiente acuerdo:*

1. ***El pleno del ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Municipal a tomar en consideración las necesidades de la ciudadanía en relación con el lenguaje a utilizar en la elaboración y difusión de normativa y actos administrativos singulares.***

2. ***El Pleno del Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Municipal a que se tomen las medidas necesarias para capacitar a las y los profesionales que se ocupan de la redacción de dichos documentos mediante la formación específica necesaria.***

3. ***El Pleno del Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Municipal a redactar los documentos de mayor impacto institucional mediante los criterios del lenguaje claro y lectura fácil o complementarlos con una versión en lectura fácil.***

4. ***Durangoko Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio, behin mozio hau onartuta, hasi dezala programa bat, gaur egungo testuak aipatutako irizpideen arabera aldatzeko edo osatzeko*."

4. ***El Pleno del Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Municipal a que, desde la aprobación de esta moción, establezca un programa de sustitución o complementación de los textos actuales por/con otros redactados mediante estos criterios."***

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Guztiz ados gaude askotan herritarrek ez dituztela erraz ulertzen administrazio publikoetatik etorritako xedapenak, ebazpenak eta komunikazioak.

Ostera ere ados gaude esaten dugunean herritarrez kezkatzen den administrazioak beharrezko tresnak eskaintzen saiatu behar duela ezagutza eta informazioa ahalik eta argien irits dadin guztiengana.

Horrekin, mozio honen asmoaren alde jartzen gara eta ez dugu Udaletik herritarrengana zuzentzen den informazioaren komunikazio eta ulermen hobea eragiten duen guztiaren kontrako botoa emango. Hala eta guztiz ere, gure ustez, eduki guztiek zehaztapena emango duten eta hutsuneak edo anbiguotasunak saihestuko dituzten termino teknikoak eta juridikoak eskaini eta txertatu beharko dituzte eta horiei erreferentzia egin behar die.

Hori dela eta, eta komunikazioek betebehar hori ere bete dezaten, berdin-berdin defendatu beharko genuke mailaren bat duten idazketak izatea, zailtasun maila handiagoan edo txikiagoan, zuzenduta dagoen horiei begira.

Hori horrela, abstenitu egingo gara, eta horrekin, espiritua, animoa eta ahalik eta argitasun handiena bilatzeari dagokionez lanean jartzen gaituen mozioaren asmoa defendatzen saiatuko gara; hau da, komunikazioak egin direneko helburua bete dezaten beharrezkoak diren termino eta idazketa teknikoetara egokitu daitezen defendatzen.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Proposamenaren aldeko botoa emango dugu; izan ere, guztiz ados gaude, eta hain zuzen ere, joan den urriaren 17an, Batzar Orokorretan,

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Estamos totalmente de acuerdo en que en muchas ocasiones no son fáciles de entender por los ciudadanos aquellas disposiciones, resoluciones y comunicaciones que emanan de las administraciones públicas.

Estamos nuevamente de acuerdo en que una administración que se preocupe por sus ciudadanos debe procurar proporcionar los instrumentos necesarios para que el conocimiento y la información lleguen a todos y todas con la mayor claridad posible.

Con ello nos posicionamos a favor de la intención de esta moción y no votaremos en contra de todo aquello que suponga una mejor comunicación y comprensión de la información que desde el Ayuntamiento se dirija a la ciudadanía. Sin embargo, defendemos que todos los contenidos deben aportar, incluir y hacer referencias a términos técnicos, jurídicos que den concreción y eviten lagunas o ambigüedades.

Por ello, y con el ánimo de que las comunicaciones cumplan también con este requisito, debemos defender de igual modo que contengan redacciones que puedan incorporar algún grado, en mayor o menor medida de dificultad, para aquellos a quien se dirige.

Así pues, nos vamos a abstener y con ello tratamos de defender tanto el espíritu, el ánimo y la intención de la moción que nos ocupa en cuanto a buscar la mayor claridad posible como defender que las comunicaciones sean ajustadas a los términos y redacciones técnicas, jurídicas etc. necesarias para que cumplan la finalidad para el que son emitidas.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Vamos a votar a favor de la propuesta porque estamos totalmente de acuerdo y de hecho, el pasado 17 de octubre, en Jun-

Legez besteko proposamena proposatu genuen. Hura aho batez atera zen aurrera, eta beraz, Foru Aldundiak ibilbide luzea egina du irakurketa errazagoari laguntza ematen.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Gu bat gatoz eskaera honekin. Hasi da lantzen udaletxe honetan eta gauza batzuk egin dira.

Bat gatoz eskaerarekin baina publiko jakin horretatik haratago joan beharko litzateke eskaera eta irakurketa errazaren inguruko gogoeta, hau da, hizkuntza juridiko administratiboa zaila da portzentaje handi baterako, jende askok ez dituelako testuak ulertzen.

Hizkera hori erabili da askotan desberdintasunak markatzeko eta statusa markatzeko ere bai. Bizkaiko Juntetan, adibidez, erabaki zen gaztelania erabiltzea beharrezkoa zela klase popularra kanpoan uzteko. Beraz, gardentasunaren alde guk uste dugu irakurketa erraza zabaldu behar dela prozedura guztietara. Eta udalak erantzuna ematen duenean, eta Durangoko udalaren kasuan hori ez da askotan gertatzen, baina erantzuten duenean erantzunak ahalik eta garbienak, laburrenak eta errazenak izan behar dira guztiontzat.

Aurrekontuak dira beste adibide bat, non hemen Durangon ez dira batere errazak irakurtzeko, horregatik uste dugu guztiz egokia dela proposamen hau publiko jakin horretarako, baina gainerako guztiei ere zabaldu behar da guztiontzat, hau da, prozedura administratiboetan gardentasuna da irizpide inportante bat eta gardentasun horren alde testuak irakurterrazak izan behar dira guztiontzat.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Mozioan eskatzen denarekin ados gaude. Egia da erakunde batzuetan erabiltzen den hizkuntzak ez dirudiela ez gaztelania ezta euskara ere, badirudi beste hizkuntza batean ari zaizkigula eta uste dugu garrantzitsua dela tresnak ematea, alegia, hizkuntza errazean ematea.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Horrekin, gardentasunarekin eta parte-hartzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu; izan ere, parte-hartze eta gardentasun hori ez dugu ulertzen informaziorako irisgarritasunik gabe.

tas Generales, propusimos una proposición no de Ley que salió adelante por unanimidad y por tanto la Diputación lleva ya un camino recorrido en contribuir a una lectura más fácil.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Estamos de acuerdo con la petición. Se ha empezado a trabajar en este Ayuntamiento, y ya se han hecho algunas cosas.

Como digo, estamos de acuerdo con la petición, pero creemos que debería ir más allá de un público determinado y que se debería reflexionar sobre la lectura fácil. La cuestión es que el lenguaje jurídico-administrativo es difícil para un porcentaje amplio de la ciudadanía, porque mucha gente no entiende ese tipo de textos.

Muchas veces, ese lenguaje se ha empleado para marcar tanto las desigualdades como el estatus. Por ejemplo, en las Juntas de Bizkaia se decidió que había que utilizar el castellano para dejar fuera a la clase popular. Así pues, consideramos que la lectura fácil debe extenderse a todos los procedimientos para asegurar la transparencia. Y cuando el Ayuntamiento debe responder —si bien en el caso del Ayuntamiento de Durango no ocurre a menudo—, las respuestas deben ser lo más claras, concisas y sencillas posible, para todos.

Otro ejemplo son los presupuestos. Aquí, en Durango, no son nada fáciles de leer; por eso creemos que esta propuesta es adecuada para ese público en concreto. Aun así, se debería extender a todo el mundo, porque la transparencia es un criterio importante en los procedimientos administrativos, y para garantizarla los textos deben ser fáciles de leer para todos.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Estamos de acuerdo con lo que se solicita en la moción. Es verdad que el lenguaje que se emplea en algunas instituciones no parece castellano ni euskera; parece que nos hablan en otro idioma. Por esa razón, creemos que es importante ofrecer herramientas, es decir, escribir en un lenguaje sencillo.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Con esto queremos ratificar nuestro compromiso con la transparencia y la participación porque no entendemos esta participación y esta transparencia sin una accesibilidad a la información.

PPko kideari argitu nahi diogu 3. eta 4. puntuetan jarri dugula hizkera teknikorik gabe idatzi ezin diren testuak erraz irakurtzekoak eta erraz ulertzekoak diren beste batzuez osatuta joan daitezkeela. Pozik gaude gai honetan guztiok nahiko ados gaudelako.

Queremos aclarar al compañero del PP que en los puntos 3 y 4 ponemos que los textos que no puedan ser redactados sin lenguaje técnico puedan ir complementados con otros que tengan lectura fácil y de fácil comprensión. Estamos contentos con que en este tema estemos todos bastante de acuerdo.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitxa hauxe:

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrato botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: NINGUNA.
- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

Hortaz,

En su vista,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto íntegro de la Moción anteriormente transcrita.

**ZAZPI.- APIRILEKO OSOKO BILKURA EGUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

**SIETE.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA FECHA DEL PLENO ORDINARIO DEL MES DE ABRIL.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Dakizuenez Bozeramaleen azken Batzordean ez baina aurrekoan nik neuk egin nuen eskaera apirileko ohiko plenoa 26tik 19ra pasatzeko, hau da astebete aurreratzea ohiko pleno hori. Inork ez du kontrakorik esan baina, hala ere, bozkatu egingo dugu

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como sabéis, en la penúltima Junta de Portavoces solicité que se cambiara el pleno ordinario del 26 de abril al 19 de abril, es decir, que se adelantara una semana. Nadie se ha opuesto, pero vamos a votar de todas formas.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hurrengo osoko bilkura apirilaren 26an izan beharrean **apirilaren 19an** izatea onartu du.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de **Abril** del día 26 al **19**.

**ZORTZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

**OCHO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

➢ **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Eskaera bat egiten diogu Gobernu Taldeari sententzia bat

➢ Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Solicitamos al Equipo de Gobierno que

betetzeko. Guk, orain dela bi aste jaso genuen kontentzioso-administratiboko auzitegiaren epai bat arrazoia emanez EH Bilduko ordezkari bati egindako informazio eskaera baten ukazioa dela-eta. Sententziak arrazoia ematen zion EH Bilduko ordezkariari eta derrigortzen zuen udala 14 dokumentu zinegotzi horren eskura jartzeko:

Bi aste pasatu dira, guk sententzia jaso genuenetik behintzat, eta ez dugu dokumentu bat ere jaso.

Oso larria iruditzen zaigu epaitegietara joan behar izatea oinarrizko eskubide bat aldarrikatzeko, urte bete egotea epaiketa baten hori eskatzeko eta, arrazoia ematen digutenean, bi aste pasatu dira eta oraindik ez dugu informaziorik jaso. Guretzat prebarikazio kasu oso argia da, gu ez gara berriz epaitegietara joango, pentsatzen dugu hemen momentu honetan gauzak nahiko argi daudela, alegia, oinarrizko eskubide honen murrizketa egiten dela, beraz, zer gehiago egin behar dugu informazio hori eskuratzeko?

Azken plenoan mozio bat onartu zen IVAPek egindako lan-poltsa batetik Idazkariorde eta Diruzain lanpostuak betetzeko bi pertsona eskatzeko lan-poltsa horretatik. Jakin nahi dugu egin den ala ez; badakigu legez derrigortasun bat dagoela Osoko Bilkurak hartzen dituen erabakiak hirugarren batengan eragina baldin badute notifikatzeko hirugarren pertsona horri, eta jakin nahi dugu egin den edo ez. Udala IVAPekin harremanetan jarri garen ala ez eta hori bete den ala ez.

Bitartean badakigu beste lan-poltsa batetik beste administrari bat hartu dela, suposatzen zen SACeko baja bat kubritzeko zela baina badakigu pertsona hori erabili dela orain Kontu-hartzailetzara joateko administrari lanak egiteko. Beraz, alde batetik ez da betetzen Osoko Bilkurak hartutako erabaki bat eta bitartean era ez guztiz erregular batean hartzen da pertsona bat lanpostu baterako eta bideratzen da beste batera. Jakin nahi dugu zer egin behar dugun Osoko Bilkuran hartutako erabakia behar den bezala betetzeko eta bitartean ez egiteko horrelako kontrataziorik.

cumpla una sentencia judicial. Hace dos semanas recibimos una sentencia del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el que se le daba la razón a un representante de EH Bildu por la negativa a una petición de información. La sentencia da la razón al representante de EH Bildu y obliga al Ayuntamiento a poner a disposición del concejal 14 documentos.

Han pasado dos semanas desde que recibimos la sentencia, pero todavía no hemos recibido ni un solo documento.

Nos parece muy grave tener que recurrir a la justicia para reivindicar un derecho fundamental, esperar un año para solicitarlo en un juicio, y que después de darnos la razón, hayan pasado dos semanas y todavía no hayamos recibido la información. Vemos un claro caso de prevaricación; no vamos a volver a los tribunales porque creemos que todo está bastante claro, es decir, que se ha limitado un derecho fundamental. Por lo tanto, ¿qué más tenemos que hacer para conseguir esa información?

En el último pleno, se aprobó una moción según la cual se pediría que dos personas de una bolsa de trabajo del IVAP ocuparan los puestos de trabajo de Vicesecretaría y Tesorería. Queremos saber si ya se ha hecho. Sabemos que la ley obliga a que se le notifique a un tercero la decisión del pleno, en caso de que resulte afectado. Como digo, queremos saber si se ha hecho. Queremos saber si el Ayuntamiento se ha puesto en contacto con IVAP y si se ha cumplido lo estipulado.

Por otra parte, sabemos que se ha contratado a un administrativo a través de otra bolsa de trabajo, con el objetivo de cubrir una baja del SAC. Pero parece ser que esa persona está realizando un trabajo administrativo en Intervención. Así pues, por un lado no se ha cumplido una decisión del pleno, y por otro lado, se ha contratado a una persona de una forma no del todo regular para un puesto de trabajo concreto, y sin embargo está desempeñando otro. Queremos saber qué tenemos que hacer para cumplir como es debido las decisiones tomadas en el pleno, y para no hacer ese tipo de contrataciones.

Denok dakigu zelan dagoen Ondarroako herria mendi magal bat behera etorri delako; badakigu ari direla etxeetatik kanpo dagoen jendea nora bideratu ikertzen. Eskatzen diogu Alkate andreari harremanetan jartzeko Ondarroako Alkatearekin, aukerarik balego eskualde honetan lan egiten duten pertsonei Durangon ostatu emateko.

Onartu barik dago 2013ko Kontu Orokorra eta 2014koa ere. Zergatik? Noiz onartu behar dira? Jakin nahi dugu baita ere 2015eko likidazioa egin den ala ez, eta badakigu geldikina zenbatekoa den, eta jakin nahi dugu erabiltzen ari diren ala ez.

Todos sabemos en qué situación está el pueblo de Ondarroa tras los desprendimientos en la ladera de un monte. Parece ser que se está investigando cómo resolver la situación de la gente que ha sido desalojada. Solicitamos a la señora Alcaldesa que se ponga en contacto con el Alcalde de Ondarroa, para estudiar la posibilidad de alojar en Durango a las personas que trabajen en esta comarca.

La Cuenta General de 2013 está sin aprobar, y la de 2014 también. ¿Por qué? ¿Cuándo se van a aprobar? Asimismo, queremos saber si se ha realizado la liquidación de 2015; sabemos el importe del remanente, y queremos saber si se está utilizando.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:30ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:30 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Aitziber Irigoras Alberdi | Mª Jose Balier Orobio-Urrutia | Iker Oceja Sobrón | Goiztidi Diaz Basterra |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Humberto Jaio Sagasti | José María Andrés Ibañez de Garaio | Olaia Albizu Gallastegi | Harri Guridi Ordeñana |
| Daniel Maeztu Perez | Eider Uribe Padilla | Jon Andoni del Amo Castro | Rosa Maria Mintegi Egileor |
| Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu | Aritz Bravo Zubillaga | Iker Urkiza Quilez | Julian Rios Santiago |
| María Juliana Perera Figueredo | Jorge Varela Dorrio | Pilar Rios Ramos | Mauricio Garcia Martin |
| Francisco Garate Mintegui | Ramón Sorarrain Tolosa | | |